

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXXVII. edizioa

2

0

2

5



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO

ESKOLARTEKO IPUIN LEHIAKETA

XXXVII. edizioa

2 0 2 5

*Mi
Rafael Koleta*

Fotokonposizioa eta Fotomekanika:

Tecnigraf, S.L.L.

Inprimatzailea:

Tecnigraf, S.L.L.

Lege Gordailua: BI 632-2025



Rafael Mikoleta Ipuin lehiaketa

Ohore bat da zuengana jotzea Mikoleta Ipuin Lehiaketaren 37. edizio honetan, urtez urte gure idazle gazteen talentua, sormena eta sentiberatasuna berresten dituen ekitaldian. Oraingo honetan, guztira, 725 ipuin jaso ditugu, eta kopuru horrek gure haurrek idazketaren bidez adierazteko duten gogoia eta konpromisoa islatzen du.

Lehiaketa honek irakurketa eta idazketa ez ezik, oinarritzko balioak ere sustatzen ditu, hala nola, adiskidetasuna, errespetua, inklusioa eta aniztasuna. Edizio honetan aurkeztutako kontakizunek osasun mentala, naturarekiko errespetua eta gure hizkuntza eta kulturaren garrantzia bezalako gai garrantzitsuei buruzko kezka eta hausnarketa sakonak jorratzen dituzte.

Era berean, miresgarria da istorioetan agertzen den irudimena eta originaltasuna, fikzioa eta fantasia lantzen baitituzte, abentura zirrargarrien, magiaren, intrigen eta emozio bizien bidez errealitatearen egoera desberdinak planteatuz.

Bihotz-bihotzez zoriondu nahi ditut sarituak, eta eskerrik beroenak eman lehiaketan parte hartu duzuen guztioi: haur, irakasle, epaimahaikide eta antolatzaile. Jarrai dezagun euskarazko idazketa eta gure kulturarekiko maitasuna sustatzen.

Juan M^a Aburto
Bilboko Alkatea

Sariak

Bilboko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko apirilaren bian, arratsaldeko bostetan, epaimahaiburua, epaimahaikideak, idazkaria eta Labayru Fundazioaren idazkaritza teknikoa batuta, hauxe erabaki du Rafael Mikoleta XXXVII. Ipuin Lehiaketaren epaimahaiak, aurkeztutako 725 ipuinak aztertu ondoren:

A KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak):

1. JAZARPENA NIRE IKASGELAN
Begoñe Najarro Larrea
La Salle Bilbao HLBHIP
2. NIRE BIZITZAKO ANIMALIAK
Lea Martinez de Rituerto Urrutia
Kirikiño Ikastola HLBHIP
3. AZKARREGI HASERRETZEN ZEN UMEA
Jule Manterola Ibarrondo
Karmelo Ikastola IPI

B KATEGORIA (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak):

1. MAHASTI ARTEAN
Malen Sagarna Villanueva
Karmelo Ikastola IPI
2. NORA ETA BILBOKO UHOLDEA
Irati Veiga Txurruka
Artxandape Ikastola HLBHIP
3. ERLOJU... ADIMENDUNA?
Izaro Oviacionayi Luzarraga
Deustuko Ikastola IPI

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

1. ZORITXARREZ EZIN DA EZER EGIN
Xabier Gómez Salas
Artxandape Ikastola HLBHIP
2. EKARPEN BAKOITZAREN GARRANTZIA
Garazi Garcia Allende
Artxandape Ikastola HLBHIP
3. SAREETAN NAHASTUA
Lili de Quadra de Pedro
Abusu Ikastola HLBHIP

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

1. ARDIAK
Yu Ting Ji
Colegio Nuestra Señora De Begoña LBHIP - Jesuitak Indautxu
2. ZERBAIT ESAN NAHIKO NUKE
Garazi Iraeta Postigo
IES Ibaizabal BHI
3. OLIBONDO BAT GUTXIAGO ZAGREBEN
Ibai Gea Cámara
Artxandape Ikastola HLBHIP

MIKOLETA - BILBAO BALIOEN HIRIA

C KATEGORIA (DBHko 1. eta 2. mailak):

LIBURURIK POLITENAK
Naia Aparicio Garcia
Deustuko Ikastola IPI

D KATEGORIA (DBHko 3. eta 4. mailak):

HERRIKO TXORI BELTZ
Julen Guerra Cobos
IES Ibaizabal BHI

ARGITARAGARRIAK

A KATEGORIA:

- ESTRALURTARRA ETA HIRU UMEAK, Ander Atxa Fernández, Kirikiño Ikastola HLBHIP
- UR-JAUZI MIRAGARRIA, Elaia Barrueta Murelaga, Begoñazpi Ikastola
- NI NEU NAIZ, Izaro Basterretxea Martins, Maestro García Rivero HLHI

B KATEGORIA:

- ELKAR MUGITUZ LORTUKO DUGU, Maddi Irurtia Orbe, Karmelo Ikastola IPI
- ETXERAKO BIDEAN, Haizea Mimenza Ayo, Abusu Ikastola HLBHIP

C KATEGORIA:

- ...3 PUNTU..., Ane Martínez Revuelta, Deustuko Ikastola IPI

D KATEGORIA:

- BABESTUA, Araitx Busturia Barrena, Artxandape Ikastola HLBHIP
- BAT, BI ETA HIRRU!, Mara Orbe Alkalde, Kirikiño Ikastola HLBHIP

Eta batzarra bukatutzat eman da, Bilbon, bi mila eta hogeita bosteko apirilaren biko arratsaldeko seietan.

Eider Inunciaga Serna, epaimahaiburua

Nerea Etxebarria Gumuzio (Labayru Fundazioa), idazkaritza teknikoa

Lutxo Egia del Rio, epaimahaikidea

Mikel Etxaburu Osa, epaimahaikidea

Irene Urrizelki Berro, epaimahaikidea

Txani Rodriguez Hernandez, epaimahaikidea

Juan Ramón Madariaga Abaitua, epaimahaikidea

Maite Santiago Garabieta, epaimahaikidea

Eneko Zuloaga San Román, epaimahaikidea

Nagore Layuno Gerrikagoitia, idazkaria



A
KATEGORIA
(LHko 3. eta 4. mailak)



JAZARPENA NIRE IKASGELAN

Begoñe Najarro Larrea
La Salle Bilbao HLBHIP

Mari bere ohean esnatu zen, bere peluxe gogokoena besarkatuz. Sentimendu nahasiak zituen: tristura, urduritasuna, beldurra... Abenduaren bederatzia zen, hilabete bat pasa zen berria eman ziotenetik. Bere gurasoek lan berria aurkitu zuten Bilbon. Beraz, Errioxatik alde egin, eta leku berri batera joan behar izan ziren bizitzera. Betiko lagunak faltan botako zituen, ez zuen Bilbon inor ezagutzen, ikastola berri batean hasiko zen, ez zuen hizkuntza ezagutzen, lekua ere ez...

—Mari, zatoz gosaltzera! Entzun zen bat-batean.

Amaren ahotsa entzun bezain laster, bere pentsamenduak eten egin ziren. Gogotsu, ohetik altxatu eta gosaria prestatzera joan zen. Egun horretan Colacao eta gailetak hartu zituen. Jarraian, hortzak garbitu eta dutxa luze bat hartu zuen. Dutzatzen zen bitartean, Aitanaren abestiak jarri zituen aitaren mugikorrean, horrek lasaitzen laguntzen ziolako. Jertse gorria, praka urdinak, bota beltzak... bere arroparik politenekin jantzi zen. Gainera, Errioxatik joan baino lehen lagunik onenak oparitutako eskumuturrekoa jarri zuen, lehenengo egunean zorte ona emateko. Ile luze marroia orraztu, motxila urdin berria hartu eta korrika batean etxetik irten zen.

Presaka ibili zenez, eskolara joateko bidea zein zen amari galdetzea ahaztu egin zitzaion. Zorionez, Jon zegoen berarekin. Jon, Mariren neba nagusia da. 25 urte ditu eta magia balitz bezala, beti agertzen zen Marik arazoren bat zuen bakoitzean.



Bat-batean, poltsikotik mapa bat atera eta Mariren eskola berrira, “Hontz eskola”ra, abiatu ziren.

Mari eskolara iritsi zen bere anaia Jonen laguntzarekin. Laugarren pisura arte igo ziren eskaileretatik. Gero, korridoretik sartu eta laugarren gela zen berea, atea pegatinez beteta zuena. Han, muxu bat eman eta elkar agurtu zuten.

—Agur Jon —esan zuen begiak malkoz estalita.

—Agur Mari, ziur nago lagun onak egingo dituzula. Zorte ona lehenengo egunean. Maite zaitut. Erantzun zuen berak.

Gelan, Uxue irakasleak, gainerako ikasleen aurrean bere burua aurkezteko eskatu zion. Mari, oso urduri jarri zen. Bihotza hain azkar taupaka ari zitzaion, bularretik aterako zitzaiola ematen zuela. Aurpegia hain gorri eta bero zuen, edozein momentutan lehertuko zitzaiola beldur zen. Eskuak hain izerditan zituen, dutxatik atera berri zela zirudiela. Hain dardarka zegoen, dantzan ari zela zirudiela.

—Kaixo, eh, nire izena Mari da, eh, 9 urte ditut etaaa, eh, margotzea gustatzen zait. Lehen, eh, Errioxan bizi nintzen.

—Eta, zergatik etorri zara Bilbora? —galdetu zuen klaseko batek.

—Baa, eh, nire gurasoek hango ospitalean egiten zuten lan. Egun batean, eh, Cruceseko ospitaletik deitu zuten aita, eh, berak hemen lan egitea gura zutelako. Denbora luzez pentsatu ostean, hona etortzea erabaki zuten —azaldu zuen Marik.

Zer gehiago esan jakin gabe ikaskideei banan-banan begiratzen hasi zen. Ikasle batzuek atseginak ziruditen arren, beste batzuek jakin-minez begiratzen zioten edo xuxurlaka komentarioak egiten ari zirela nabaritu zuen.

Esertzeko ordua iritsi zenean, inork ez zion tokirik gorde, eta ilararen amaieran, hutsik zegoen mahai batean jesarri zen bera bakarrik. Mari oso triste ipini zen baina bere tristura disimulatu eta berarentzat gorde zuen.

Atsedendian, Mari neska talde batengana hurbildu zen, baina haietako batek, Anek, bromatxo astun bat egin zion.

—Zer esaten dio txorizo batek beste txorizo bati? —galdetu zioten Mariri.

—Ez dakit, zer? —erantzun zuen berak.

—Txerri bat zara, JAJAJAJAJA, zu bezala!

Gainerakoak barrez lehertu ziren eta Mari, negarrez, komunera korrika abiatu eta bertan ezkutatu zen. Beste egun batean, klaseko batek etxetik ekarritako ogitartekoa lurrera bota zion. Beste egun batean, bere albotik pasatzen hasi ziren behin eta berriz, bera seinalatuz eta barre eginez.

Egunero txarto sentiarazten zuten gauza batengatik edo besterengatik. Baina Marik, ez zeukan norekin hitz egin gertatzen zitzaiona kontatzeko. Bere benetako lagunak oso urrun bizi ziren eta ez zegoen modurik haiekin hitz egiteko. Bere

gurasoak egun osoan lanean zebiltzan eta etxera heltzean bakardadeaz gozatu baino ez zuten nahi. Hemen ez zuen lagun bat ere. Bakarrik sentitzen zen.

Egun batean, bere egunerokoa sortzea erabaki zuen. Hor egunero bizitakoa idatziko zuen norbaitekin hitz egiten balego bezala.

2025/01/15

“Eguneroko maitea:

Gaur gimnasia izan dugu. Futbolean jokatu dugu eta oso ondo pasatu dut. Ni ez naiz oso ona futbolean, baina asko gozatu dut. Klasea bukatu denean, aldageletara joan gara dutxatzera eta arropa aldatzera. Dutxatik irten eta nire arropa ez zegoela gorde dudan lekuan ohartu naiz. Karmen izan da nire arropa hartu eta ezkutatu didana. Azkenean, klaseko beste batek, Maitek, arropa bueltatu dit.”

Uxue irakasleak, Mariren bakardadea nabaritu zuen, eta berari laguntzeko asmoz, taldeko arte-jarduera bat antolatu zuen.

2025/01/19

“Eguneroko maitea:

Gaur klasean margolaritzako tailerra izan dugu! Asko gozatu dut. Txakur bat margotu dut, ahoan makila bat zuela. Atzetik, elurrez betetako mendiak irudikatu ditut. Oso polita geratu zait. Gainera asko postu nau Mendi eta Maite niregana hurbildu direnean, nire marrazkia asko gustatu zaiela esateko. Horren ostean, patrioko ordua heldu da eta biak nirekin hitz egitera eta jolastera etorri dira. Gaur oso egun ona izan da.”

Egunak pasa ahala, gehiago hitz egiten hasi ziren, eta pixkanaka, lagun onak izaten hasi ziren. Mari oso pozik zegoen hainbeste sufrimenduren ostean, azkenik lagunak aurkitu zituelako.

Egun batean, Marik eskolatik bueltatu eta tristura nabaritu zuen bere ama eta aitaren aurpegietan.

—Zer gertatzen zaizue? —galdetu zuen Marik.

—Aitona hil egin da gaur goizean —erantzun zuten negarrez.

Mari isilik geratu zen. Bere gorputza urtzen balego bezala sentitu zuen. Gorputza hotz geratu zitzaion. Ezer esan gabe, logelan sartu, atea itxi, ohean etzan, eta negarrez hasi zen. Aititak erakutsi zion bezala, horren alde ona ikusten saiatu zen. Familiaren garrantziaz eta aitonak erakutsitako lezioez hausnartzen hasi zen.

Berak beti esaten zion besteei lagundu behar ziela eta gauza txikietan edertasuna bilatu behar zuela. Oroitzapen horrek inspiratuta, Marik bere arazoei jarrera positibo batekin aurre egitea erabaki zuen hurrengo egunean. Klasera gogorik gabe joan zen:

2025/01/22

“Eguneroko maitea:

Gaur inoiz baino txarrago sentitzen naiz. Aitita faltan botako dut, eta gainera, klasean berriz ere ikusezina banintz bezala sentitu naiz. Hasieran, hiruko taldeak egitea eskatu digu Uxuek. Jonerengana joan

naiz, baina begiratu ere ez dit egin. Gero Karmenengana joan naiz, baina berak ere ez dit erantzun. Mikeli eta Gaizkari pertsona bat falta zitzaiera esaten entzun diet eta haiengana hurbildu naiz baina berriz ere, ez didate kasurik egin.”

Gau horretan, Mari konponbide bat pentsatzen egon zen. Ideia bikaina izan zuen, margotzea asko gustatzen zitzaion eta gelakideei zelan margotzen zuen gustatzen zitzaion. Beraz, bere margolanak sentitzen zuena adierazteko erabiltzea erabaki zuen. Animaliez eta kolore biziz betetako paisaia margotu zuen. Bat-batean, Karmen, bromak egiten zizkion neska, hurbildu zitzaion eta, damuaren keinuz, esan zion: “Barkatu.” Marik, harrituta baina eskertuta, barkamena onartzea erabaki zuen.

Mari taldean gehiago integratzen hasi zen eta konturatu zen eskolan bakarrik sentitzen ziren beste pertsona batzuk ere bazeudela. Aitonaren hitzek inspiratuta, Maite eta Mendirekin batera pintura-tailer bat antolatu zuten parte hartu nahi zutenentzat. Laster eskolako egunak atseginagoak bihurtzen hasi ziren denentzat.

Mari ohean etzan zen eta bere peluxea besarkatu zuen. Hala ere, oraingoan pozik eta lasai sentitu zen. Azken asteetan ikasitako guztiaz pentsatu zuen: ausarta izatea, barkatzea eta zailtasunetan ere edertasuna bilatzea. Irribarre batekin itxi zituen begiak, egun berri baterako prest.

NIRE BIZITZAKO ANIMALIAK

Lea Martinez de Rituerto Urrutia
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Zer egingo zenukete zuen bizitzako hildako animaliei bisita egin ahalko bazeniete?

Baziren behin hiru lehengusu: Lea, Markel eta Amets. Hirurek katuak zituzten. Markel eta Ametsenak Koko eta Beni ziren; eta Learena, Argi. Hauek ez ziren euren bizitzako lehenengo animalia kideak. Urte bat lehenago Learen Tesla izeneko katua eta Markel eta Ametsen Kira katua bat-batean hil ziren.

Tristura izan zuten bihotzean Tesla eta Kira hiltzerakoan. Euren egunerokotasunera itzuli behar izan zuten. Garai gogorrak izan ziren. Baina Argi, Koko eta Beni euren bizitzetara heltzerakoan berriro maitatzeko aukera izan zuten, eta katuak euren oinetan lo egiterakoan, berriz ere amodioa, beroa eta segurtasuna sentitu zituzten.

Neguko egun eguzkitsu bat zen. Aurreko egunetan elurra egin zuenez, hiru lehengusuek eskiatzera joatea erabaki zuten, eta haien eskien gainean katuak jarrita, elurrean gora eta behera ibili ziren behin eta berriz.

Halako batean mendiko saltoetatik sartzea erabaki zuten. Azkeneko saltoa egiterakoan hegan egin zuten, ortzadarrerraino helduz eta haren gainetik eskiatzen jarraitu zuten.



Toki berdinean agertu ziren, edo ia berdinean... hildako animalien munduan zeudela konturatu ziren haien katu hilak ikusi zituztenean! Korrikan hasi ziren denak, elkar besarkatu arte. Katuek ere elkar ezagutu zuten.

Teslak Argiri gauza asko erakutsi zizkion: mendian seguru ibiltzeko trukuak, Learekin lasai lo egiten, koska ez egiten edota etxeko erregina izaten. Kirak, bestalde, Beniri denek berari kasu eta mimoak egiteko egin beharrekoak erakutsi zizkion. Eta Benik, nagusienak, Kokori erakutsi zizkion.

Mundu hori amodioz eta lorez beteta zegoen. Bertan zuhaitz erraldoi bat zegoen, oso potoloa, eta nahiz eta noizbehinka ebakitzen zuten, ia zerua ukitu arte handitzen zen.



Elkarrekin mendian etxeak eraikitzea erabaki zuten: bat lehengusinarentzat eta beste bat lehengusuentzat, anaiak zirelako. Egunak lanean eman ondoren, etxeak amaitu zituzten. Janaria lortzeko baratze bat ere jarri zuten etxetik gertu.

Denborak aurrera egin ahala, euren sekretuei buruz hitz egiteko etxola bat eraikitzea erabaki zuten. Bertan biltzen zirenean, mundu berri honetara nola iritsi ziren eta handik ateratzea nola lortuko zuten lantzen zuten. Izan ere, ez zuten oroitzen bertara nola iritsi ziren, ortzadarretik erortzean izandako kolpearen ondorioz. Mundu hori beraientzat oso arraroa zela argi zuten, baina, era berean, bertan asko disfrutatzen zutela.

Halako batean, mundu horretara nola sartu ziren gogoratu zuten: ortzadarretik hegan egin ostean egindako saltoaren bitartez. Beraz, saltoa berriro egiten bazuten, euren mundura itzultzea lortuko zuten. Eta nahi adina aldiz joan eta etorri egin ahal izango zuten. Baina Kirak eta Teslak azaldu zieten, mundu horretara amodioa behar zutelako iritsi zirela, eta bertan urtebete baino gehiago egonez gero, ezin izango zirela euren mundura inoiz itzuli. Bazegoen beste modu bat bertara itzultzeko, proba bat gainditzen bazuten, urtean hilabete batez bertan egon ahalko ziren.

Lehengusuak proba gainditzeko irrikan zeuden. Urtean hilabete batez han egoteak sekulako ilusioa egiten zien. Beraz, Kirak eta Teslak proba azaldu zieten. Beno, proba galdera soil bat zen: Zergatik maite gintuzuen?

Markelen eta Ametsen erantzuna honakoa izan zen: zurekin jolasten genuelako eta konpainia egiten zenigulako. Leak honakoa erantzun zuen: nirekin lo egiten zenuelako, batera jolasten genuelako eta maitasuna ematen zenidalako. Etxerako lanak egiten bakarrik nengoenean nirekin zeundelako eta beti hor zintudalako laguntzeko prest.

Maitasun hitz haiekin, proba gainditzea lortu zutela esan zieten Kirak eta Teslak. Lehengusuek katuak besarkatu zituzten eta, erabat zoriontsu, hurrengo urtera arte agurtu ziren.



Bueltako bidean, Markelek gertatutakoa gurasoei nola azalduko zieten galdetu zien Lea eta Ametsi. Hori entzutean denak isilik gelditu ziren eta bat-batean hirurak barrez hasi ziren.

Ortzadarreko saltora iritsi zirenean, elkarri begiratu eta salto egin zuten.

Lehengusuak, Argi, Beni eta Koko, basoko puntu berdinean agertu ziren.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila ortzadarrean.

AZKARREGI HASERRETZEN ZEN UMEA



Jule Manterola Ibarrondo
Karmelo Ikastola IPI

Bazen behin oso azkar haserretzen zen ume bat, Aiara izenekoa, eta horrek arazo asko eragiten zizkion. Lagunekin zegoenean, edozein bromak edo gustatzen ez zitzaizkion gauzek haserretu egiten zuten. Azkenean, lagunak nazkatu egiten zituen eta poliki-poliki bakarrik gelditzen hasi zen. Aiara gero eta tristeago zegoen.

Egun batean ume berri bat iritsi zen gelara, Elene zuen izena. Oso broma zalea zen eta Aiararen lagun egiten saiatu zen, beti bakarrik ikusten zuelako. Baina zoritxarrez, inork ez zion ezer esan eta broma bat egin zion. Aiara asko haserretu zen eta ez zion Eleneri hitz egiten, nahiago zuen bakarrik egon, eta Elenek ez zuen ezer ulertzen.

Elene oso triste zegoen. Egun batean negarrez ikusi zuten, eta gelakideak zerbait gertatzen zela konturatu ziren. Horregatik, jolastorduan berarengana hurbildu ziren eta zer gertatzen zitzaion galdetu zioten. Honek Aiararekin gertatutakoa kontatu zien eta normala zela eta trankil egoteko esan zioten, Aiara beti haserre zegoelako.

Orduan Elene harrituta geratu zen lagunek emandako erantzunarekin. Ez zuen ezer ulertzen. Aiarak 8 urte zituen eta egunero haserre zegoen, bakarrik. Zer

pasatzen zitzaion? Zergatik zegoen beti haserre? Zer gertatzen zitzaion Aiarari? Eta gelakideekin hitz egitea erabaki zuen, ea arrazoia ezagutzen zuten jakiteko. Hurrengo egunean gelakideengana hurbildu zen, eta aurreko egunean bere buruari egin zizkion galderak lagunei galdetu zizkien. Hauek harrituta gelditu ziren. Inoiz ez zuten pentsatu Aiara zergatik zegoen beti haserre, eta Aiararengana hurbildu ziren zer gertatzen zitzaion galdetzera. Zergatik zegoen beti haserre jakin nahi zuten.

Baina Aiarak ez zien erantzun eta are gehiago haserretu zen. Geroztik ez zion inori hitz egiten eta erabat bakarrik gelditu zen.

Denbora pasatuta, Elene eta lagunak kezkatuta zeuden ez ziolako inori hitz egiten eta beti bakarrik zegoelako. Horregatik, irakaslearekin hitz egitea erabaki zuten, Amaiarekin. Irakaslearengana hurbildu ziren, eta Elenek Aiararekin gertatutakoa kontatu zion eta beti bakarrik zegoela esan zion.

Amaia ordura arte ez zen konturatu Aiara bakarrik zegoela eta lagunekin ez zuela hitz egiten. Horregatik, umeei esan zien lasai egoteko eta Aiararekin hitz egingo zuela, arazoa zein zen jakiteko.

Hurrengo egunean, irakasleak patio orduan Aiarari hurbiltzeko esan zion eta zer gertatzen zen galdetu zion. Aiara Amaiarengana hurbildu eta negarrez hasi zen. Amaiak lasaitzeko esan zion, baina Aiara negar batean zegoen eta ezin izan zuen hitz egin.

Aiara lasaitu zenean, ingeleseko orduan, Amaiarengana joateko baimena eskatu zion irakasleari. Honek baimena eman zion eta Aiara Amaiarekin hitz egitera joan zen.

Amaiak Aiara ikusi zuenean, hitz egin nahi zuen galdetu zion eta honek baietz erantzun eta gero, Aiarak dena kontatu zion: Txikitatik gelan inork ez nau ondo tratatu, beti bromak egin dizkidate eta askok mindu naute; hitz itsusiak esan dizkidate, gauzak ezkutatu dizkidate eta horrelako bromak ez zaizkit gustatzen. Aspertuta nago bromekin, min ematen didatelako, baina gelakoek ez dute ulertzen eta jarraitu egiten dute, triste nago. Eta esaten duten bezala, asko haserretzen naiz, baina ez dakite arrazoia zein den". Orduan, Amaiak esan zion lagunekin hitz egin behar zuela eta zer gertatzen zen azaldu behar ziela, bestela, lagunek bromak egiten jarraituko zutela.

Horregatik, Amaiak tutoretza orduan bromen inguruan hitz egin zuen. Broma bat zer zen azaldu zuen, eta broma batzuk min eman ahal zutela esan zuen. Gero, Aiarari zer gertatzen zitzaion kontatzeko eskatu zion. Aiara, orduan, aulkitik altxatu zen eta nola sentitzen zen kontatu zuen, txikitatik zer sufritu zuen esan zuen. Lagunei bere sentimenduak azaldu zizkien eta adibideak jarri zituen, lagunek zergatik haserretzen zen jakiteko.

Lagunak harrituta geratu ziren, gauza asko ez zekizkiten, ez zuten uste horren gaizki pasa zuenik Aiarak. Beraientzat bromak bakarrik ziren. Elene ere, orduan konturatu zen Aiara zergatik haserretu zen berarekin, eta bera ere aulkitik altxatu zen Aiarari barkamena eskatzeko. Ez zuela mindu nahi, esan zion. Eta min eman bazion, asko sentitzen zuela. Ez zekiela horren gaizki pasa zuenik. Orduan, Aiarak barkatu egin zion. Jarraian, gelako guztiek Aiarari barkamena eskatu zioten eta guztiak adiskidetu egin ziren.

Amaia poz-pozik zegoen, denak ondo zeudelako eta inor ez zegoelako haserre. Baina, orduan, Amaiak zera galdetu zien: Zer ikasi duzue? Eta, orduan, Elenek erantzun zuen: Broma guztiak ez dira barregarriak eta batzuetan min ematen dute, kontuz ibili behar da. Gelako guztiak Elenerekin ados zeudela esan zuten eta patiora igo zirenean, elkarrekin jolasten aritu ziren, baina min ematen duten bromak egin gabe, hitz itsusiak esan gabe, lagunei ezer ezkutatu gabe...


Handik aurrera, Amaiaren gelan lagun guztiak elkarrekin jolasten zuten, bromak egiten zizkieten elkarri, baina denek barre egiteko bromak ziren eta ez inor mintzeko. Denek ikasi zuten broma guztiak ez direla onak eta, batzuetan min ematen dutela, eta jendea baztertzeko bakarrik balio dutela.

Hala bazan eta ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Bilboko Udaletxean.



ESTRALURTARRA ETA HIRU UMEAK

Ander Atxa Fernández
Kirikiño Ikastola HLBHIP



Espazio-ontziaren barruan bero zegoen. Hala ere, Aimar, Xabier eta Ander astronautek irten behar zuten. 2045. urtea zen eta heldu berri ziren Marte planetara.

Bat-batean estralurtar bat aurkitu zuten: hiru buru zeuzkan, sei beso, hiru hanka eta hiru hatz beso-hanketan. Halako batean astronautengana hurbildu zen. Ander astronautak “Kaixo” esan zion. Estralurtarrak planetaren zati bat apurtu zuen. Izan ere, majoa zen baina oso gaiztoa. Mailu erraldoi batekin apurtu zuen planetaren zatia.

Astronautak harrituta geratu ziren. Hori dela eta, Aimarrek pegamentua edo kola eta ura hartu zituen eta astronautek konpondu zuten planeta. Espazio-ontzitik pegamentua edo kola bota zuten bira ematen planetaren inguruan. Ura pegamentuarekin bota zuten eta planetaren zatiak itsatsi ziren.

Estralurtarrak eskerrik asko esan zien.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila eta irten dadila estralurtarren planetetan.

UR-JAUZI MIRAGARRIA

Elaia Barrueta Murelaga
Begoñazpi Ikastola

Ipuin hau, munduan beste asko bezala, Bilbo izeneko hiri batean gertatu zen. Orain dela urtebete mirari bat jazo zen. Inork ez du gertatutakoa ezagutzen eta nik neuk kontatuko dizuet.

Garazi naiz, hamar urteko neska abenturazale bat eta, nire adineko guztiak bezala, udan ibilaldiak egitea gustatzen zait inguruko mendi eta txokoak ezagutzeko. Iazko uda oso beroa izan zen eta, abuztuko egun eguzkitsu batean, haize freskoaz gozatzeko irrikan nengoen. Motxilan ura eta otarteko bat sartu eta bideari ekin nion Pagasarri mendia igotzeko asmoz.

Abusu auzotik hasi nuen ibilaldia kalez kale. Hura zen beroa. Bekokitik lehen izerdi tantak jausten hasi zitzaizkidan. Hiriko azken etxeak atzean utzi eta itzala topatu beharrak basora sartzera eraman ninduen. Zuhaitzen adar eta hostoen babesa sentitzen hasi nintzen.

—Zein usain goxoa! Hemen jada ez dago ke usainik! —pentsatu zuen nire buruak. Aurrera egin ahala txorien kantuak eta errekaaren zarata entzun nuen eta horrek poz izugarria eragin zidan gorputzean. Bat-batean, erreka baten aurrera iritsi nintzen eta haren lepoan ur-jauzi harrigarri bat zegoen.

—Hau izango da liburuetan agertzen den Bolintxuko ur-jauzia. Ze polita!



Edertasun hari begira nengoela, mendizale bat hurbildu zen eta berarekin hizketan jarri nintzen. Emakume mendizale hura oso aditua zen eta ur-jauziaren inguruko kondaira kontatu zidan. Bertan altxor miragarri bat ezkutatuta omen zegoen eta hiriko kutsadura garbitzeko edabe bat gordetzen zuen.

Emakume jakitun hura agurtu eta barrura sartzea pentsatu nuen. Bakarrik nengoen basoaren erdigunean ur jauziari begira, eta nire gorputza uretan sartu nuen. Hura zen ur garbia, lurreko harriak ikusten ziren.

Gora eta behera nenbilen eta une horretan ur azpian zulotxo bat ikusi nuen. Bertan zerbait zegoen. Urduri jarri nintzen eta lehenengo aldian jaitsi nintzenean, ez nuen aire nahikoa hartu eta ezin izan nuen bertan ikusten zen kutxa antzeko hori hartu.

Bigarrenean, gauza distiratsu hori kanpora atera nuen. Oso aztoratuta nengoen eta urre itxura zuen kutxa irekitzea erabaki nuen.

Ikaragarriaaaa! Uauuuu! Bertan, zilarra, urrea, bitxiak eta botila zahar eta itsusi bat ageri ziren. Ingurura begiratu eta inor ez zegoela ohartu nintzenean etxera korrika joan nintzen.

Hurrengo egunean, nire lagun Ibon eta Iñaki bikiei kontatu nien gertatutakoa, baina bietako batek ere ez zuen sinistu. Hori dela eta, etxera etortzeko esan nien eta harrituta geratu ziren.

Beraientzako nahi zuten eta gauean, etxean sartu, eta botila izan ezik den-dena lapurtu zuten bi anaiek. Esnatu eta, kutxa zabaltzean, botila besterik ez zegoela konturatu nintzen. Erabat triste nengoen eta Pilar alkateari deitzea erabaki nuen. Amari mugikorra eskatu eta udaletxera deitu nuen. Pilarrek konta zidan, kondairak dioen bezala, edabe magikoa besterik ez zela behar kutsadura guztia desagertzeko. Hitz haiek entzunda poz-pozik jarri nintzen.

Pilar alkateak berriro mendi tontorrera igotzeko esan zidan eta botila barruan zegoen mezua irakurtzeko.

Gora iritsi nintzenean agindutakoa irakurri eta botila barruko edabea mendian zehar bota nuen hitz hauek esanda:

—Saneum! Saneum! Desagertu dadila Bilboko kutsadura!

Argi distiratsu bat atera zen zerutik eta kutsadura lainoa desagertzen hasi zen hiritik. Oso pozik nengoen eta etxera bueltatu nintzen.

Pilar alkateak deitu ninduen eta esan zidan kameretatik lbon eta lñaki ikusi zituztela kutxa lapurtzen eta euren aita Juan Marirekin hitz egingo zutela.

Azkenik, kutxa bueltatu zutenean, Arte Ederretako museora eramatea pentsatu zuten, Bilboko jendeak ikus zezan. Ordutik, Bilbo erabat garbi dago eta denek ikusi dezakete altxorra museoan.

Hau hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Abusuko plazan.

NI NEU NAIZ

Izaro Basterretxea Martins
Maestro García Rivero HLHI

Jon triste dago, beti bezala, egunero gertatzen zaio. Eskolan bakarrik dago, inork ez du berarekin egon nahi familia arazotsua duelako. Bere ama zoroetxe batean egon da eta aita kartzelan delitu bat baino gehiago egiteagatik. Herri txiki batean bizi dira eta, guztiok elkar ezagutzen dutenez, Jonen ikaskideen gurasoek berarekin ez egoteko esaten diete, bere gurasoak bezain gaiztoa delakoan.



Gaur, egunero bezala, Jon eskolara joan da baina gauza bat aldatu da, jantokian neska bat hurbildu zaio.

—Kaixo! Nire izena Arene da, zure ondoan eser naiteke?

—B...ba...bai, noski bai. Ni Jon naiz —esan zuen irribarre batekin ahoan.

—Patio orduetan bakarrik ikusten zaitut, ez duzu besteekin jolasten, zer gertatzen zaizu?

—Inork ez du nirekin egon nahi, nire gurasoak bezain gaiztoa naizela pentsatzen dutelako, baina ni ez naiz nire aita, ezta nire ama ere. Ni neu naiz, Jon.

—Ohhh... eta etxean ez zara zoriontsu.

—Ez, etxean ez nago eroso, nire gurasoek ez naute ondo zaintzen, ez diet axola, ez dut etxe horretan bizi nahi.

Bat-batean Arenek kolpe bat eman zuen mahaian eta lagunduko ziola esan zion.

—Badakit! Nire amarengana joango gara, hain jatorra da... Eta zer gertatzen zaizun azalduko diogu. Baina... familian badaukazu norbait gehiago? Osabaren bat, lehengusuren bat...

Jon pentsatzen geratu zen.


—Nire amama oraindik bizirik dago, etxean bere argazki bat genuen.

—Oso ondo Jon! Ahal baduzu bilatu, hartu eta nire etxera ekarri eta horrela hiruren artean ikertuko dugu.

Jon etxera joan zen argazkia bilatzera. Ez zegoen inor, beti bezala. Leku guztietatik begiratu zuen, baina ez zuen aurkitu. Orduan, ganbaran argazki asko zeudela gogoratu zuen, igo zen eta sartzean, egurrezko kaxa zahar bat zegoen.

Barruan argazki asko zeuden eta markoa zeukan argazki bat ikusi zuen, zorionez amamaren argazkia zen!

Hartu zuen eta papertxo bat erori zen.



Hurrengo egunean, argazkia eta papertxoa Areneren etxera eramane zituen. Jon sartu zenean, Sofiak (Areneren ama) Arenek dena kontatu ziola eta berari laguntzeko eskatu ziola esan zion.

Jonek, eskutitza erakutsi zien eta Sofiak helbide hori ezagutzen zuela erantzun zion, bere lagunik onena hortik bizi zen. Sofiak kotxea hartu zuen eta hirurak Kalatego herrirantz abiatu ziren. Iritsi zirenean, Jonen amamaren etxea bilatu eta

hara joan ziren. Etxea aurkitu zuten, kotxetik jaitsi eta Jonek, oso urduri, txirrina jo zuen. Ile zuria, aurpegi irribarretsua eta betaurreko borobilak zituen andre batek zabaldu zuen atea. Nortzuk ziren galdetu zien eta orduan, Jonek, negarrez, bere biloba zela esan zion, argazkia atera zuen eta guztia kontatzen zion bitartean, amama Carmen argazkia begiratzen geratu zen.

—Ez nekien biloba bat nuenik —esan zuen amama Carmenek begiak malkoz beteta.

—Ez dut etxe horretan egon nahi, arazo asko daude, nire gurasoak ez daude inoiz, beti bakarrik nago, ez didate kasurik egiten.

—Niri gauza bera gertatu zitzaidan eta horregatik duela hamaika urte handik joan nintzen. Haiekin hitz egitera joango gara eta hilabete batzuk nire etxean geratuko zarela esango diegu, bere arazoak konpondu arte.

Arratsalde osoa hitz egin eta gero, herrira itzultzea erabaki zuten. Amama Carmen eta Jon etxera heldu ziren eta, amama ikustean, Jonen gurasoak ahozabalik geratu ziren. Elkarrekin hitz egitera eseri ziren eta Jon hilabete batzuk amama Carmenen etxean geratuko zela kontatu zien. Jonen gurasoak harrituta geratu ziren, baina erabakia onartu zuten.

Handik aurrera, Jon amamarekin oso eroso eta maitatua sentitu zen eta lagundu zion lagunak egiten. Ume zoriontsua bihurtu zen!



AMAIERA



B
KATEGORIA
(LHko 5. eta 6. mailak)



MAHASTI ARTEAN

Malen Sagarna Villanueva
Karmelo Ikastola IPI

Ni Charlotte naiz, 10 urte ditut. Colmarren, Alsazian bizi naiz. Hemengo etxeak zaharrak direnez, kolore ezberdinetakoak, egurrez eginak eta puntan amaituak dira. Nire etxea adibidez gorria da. Nire leihotik mahastiak ikusten dira.

Nire gurasoek okindegi batean egiten dute lan eta bretzelak egiten ditugu zoriontasuna Alsazia eta Alemania guztitik banatzeko. Oso ezagunak dira.

Egunero ikastolara joan, lagunekin egon, gurasoei okindegian lagundu, dutxatu eta lo egiten dut. Egunak aurrera egin ahala, ikastolan gimnasia egiten ikusi ditut, saiatu egin naiz. Oso ondo pasatu dut eta trebea naizela esan didate. Konturatu naiz gimnasia berezia dela, ez dela kirol huts bat bakarrik. Nire egunerokotasunera moldatzen ikasi dut, lagunak alde batera utzi gabe eta gurasoak okindegian lagunduz, gimnasia eginez.

Larunbata da eta, zer egin ez dakidala, nire aurrezkiekin zer bait egin dezakedala gimnasian laguntzeko pentsatu dut. Denborarekin, arropa egokian gastatzea erabaki dut. Iluntzean mahasti artean ezkutatu eta txiribueltaka hasi naiz. Alde batetik bestera mahastien usainarekin hobeto hartzen dudanez arnasa, askoz lasaiago hartzen dut eta ez naiz itotzen. Egunero amona bat pasatzen da eta begira gelditzen zait, bukatutakoan aurrera jarraitzen du ez banengo bezala. Gurasoak arduratu egiten dira, baina beldur naiz haiei kontatu eta gimnasian aritzea txarto irudituko zaien. Duxatu eta gero ohera joan naiz.

Nire familian behartsuak garenez, gure etxean gauza batzuk ez daude guztiz ondo. Nire logelako leihoa ez da ixten eta mahastien usaina sartzen zait. Lo nagoela gimnasiarekin amesten dut, eta usain hori arnastuz, gimnasta bilakatzen naiz.

Iluntzean mahasti artera noala, gurasoek ea mahatsak ekarriko ditudan afaltzeko galdetu didate. Nik baietz erantzun diet, zerbait hartu behar dudala eta oraintxe noala esan diet.

Mahastien artean gorde eta han hasi naiz gora eta behera, mahastien usaina nabarituz. Orduan beti begira dagoen atsoak galdetu dit.

—Nola duzu izena?

—Ni Charlotte naiz.

—Zergatik praktikatzen duzu hemen?

—Behartsuak garelako eta nire gurasoek ez daukatelako dirurik eskolak ordaintzeko.

—Ni ere lehen behartsua nintzen eta nire bihotzak zuk bezala gimnasia ezagutu zuen. Baina horiek kontu zaharrak dira.

—Eta zer? Eta zelan?

—Nire gurasoak konturatu zirenean, laguntzen saiatu ziren eta horri esker, nire garaian goraino heldu nintzen. Dena bihotzarekin pentsatu nuelako, eta zuk ere bihotzarekin pentsatu behar duzu nahi duzun hori lortzeko.

Amonarekin hitz egin ostean, berak gurasoei esan eta haiek lagundu egin ziotela gogoratu dut. Ezin dut burutik kendu. Buruari bueltak eta bueltak eman ostean, oraindik erabakia hartu behar dut. Azkenean, hainbeste zalantzaren ostean, gurasoei kontatzea erabaki dut. Afaltzen ari garela, hauxe dela unea nabaritu dut. Urduri nago.

—Ama, aita, gauza bat kontatu behar dizuet.

—Zer, Charlotte?

Ezin dut gehiago, nire buruari nahikoa gezur esan dizkiot, nahikoa ezkutatu diet eta azkenean eztanda egin behar dut eta esan egingo diet.

—Gimnasia egiten dut. Iluntzeetan mahasti artean egoten naiz. Nire aurrezkiekin erosi dut arropa. Niretzat gimnasia berezia da.

Ez dut jarraitu, nire ahotsak ezin duelako gehiago.

—Egon lasai, ulertzen dut zer den kirol bat maitatzea eta ezin egin izatea.

Afaldu ostean oso ondo sentitzen dut nire burua. Logelara joan eta mahastien usainak gogoratzen dizkidan oroitzapenak sentitzen egon naiz. Zenbat sekretu eta zenbat zama. Orain amona horrekin zorretan nago. Bizitza berriro ondo kokatu dudala sentitzen dut. Astia daukat pentsatzeko. Zer esan nahi ote zuen amonak “bihotzarekin pentsatu” esan zidanean?

Hurrengo arratsaldean gurasoei okindegian laguntzen ari naizela ezin dut burutik amonak esan zidana kendu. Denbora pasatu ahala, gero eta arduratuago nago. Ideia bat behar dut.

—Ama, ideia bat bururatu zait. Bretzelak bihotz formakoak badira, zoriontasunarekin lotuko ditugu.

—Ideia bikaina, Charlotte.

Arratsaldean bertan esan eta egin ditugu bihotz formako bretzelak.

Hurrengo egunean denak saldu dira. Afaltzen ari garela, ama eta aita begira-begira ditut.

—Zer duzue? Zergatik begiratzen didazue horrela?


—Laztana, zure ideari esker diru nahikoa lortu dugu.

—Zertarako?

—Zure gimnasiako klaseak ordaintzeko, maitea. Merezi duzula uste dugu. Gainera, zure ideia izan da.

—Mila esker. Maite zaituztet.

Ordutik aurrera gimnasia egiten hasi naiz. Dena emakume horri esker. Beti bihotzarekin pentsatzen jarraitzen dut, ulertu dudalako bihotzak beti ondo jokutzen duela. Bretzelak orain Alsazian bihotz formakoak dira, beti bezala zoriontasuna banatzeko.



NORA ETA BILBOKO UHOLDEA

Irati Veiga Txurruka
Artxandape Ikastola HLBHIP

Bazen behin, Bilboko hirian, Nora izeneko neskato bat. Norak hamaika urte zituen. 2013an jaio zen eta egunero ikastolara oso pozik joaten zen, lagunekin jolasteko. Nora alaia eta dibertigarria zen, ile luzea eta begi marroiak zituen eta altua zenez, bere ikastolako saskibaloi taldean jokatzeko zuen. Lagun asko zituen, baina bere lagunik onena aitita zen. Patxi zuen izena eta egunero itsasora joaten zen arrainetan. Batzuetan legatza, antxoak eta lupiak ekartzen zizkion afaltzeko. Patxik Norari istorio asko kontatzen zizkion, behin bale batekin hitz egin zuen; beste batean lamiak abesten entzun zituen... Norari asko gustatzen zitzaion aititaren ipuinak entzutea eta berarekin txalupan itsasora irtetea.

Larunbat goiz eguzkitsu batean, etxerako lanik ez zuenez, aititarekin itsasora joan zen. Amamak hamaiketako ederra prestatu zien: patata tortilla, txorizo egosia eta ogi barra handi bat. Nora oso gustura zegoen, baina bat-batean, urrunean olatu izugarriak ikusi zituen eta aititak salbamendu-jaka jartzeko ezan zion. Urrutian hodei beltzak eta ekaitz gogorra sortzen hasi zen. Aitita presaka Bilboko portura abiatu zen, baina ekaitza Bilbora zetorren. Orduan Norak eta bere



aititak itsasoan itxarotea erabaki zuten. Ordu batzuk itxaron ondoren eta eguraldiak hobera egin zuenean Bilborako bidea hartu zuten berriz ere.

Aitita aurpegi arraroak jartzen hasi zen, ez zituen Santurtziko haize-errotak ikusten eta Bizkaiko zubia ere desagertuta zegoen. Aurrera jarraitu eta zunda zarata handia egiten hasi zen. Pantailara begiratu eta Guggenheim museoaren gainetik nabigatzen ari zirela konturatu ziren. Nora garrasika hasi zen: Bilbo urperatuta dago!!!


Ingurura begiratu eta bilbotar guztiak Artxanda, Pagasarri eta Ganekogorta mendietan babestu zirela ikusi zuten. Orduan Nora eta Patxi amamaren bila joan ziren. Bidean, Bilboko alkatea aurkitu zuten eta txalupa zutenez, laguntza eskatu zieten Bilbo berriz flotarazteko.

Aitita urduri zegoen, amama aurkitzea bakarrik axola zitzaion eta Nora bilbotar guztiak nola salbatu pentsatzen hasi zen. Alkatearekin hitz egin ondoren, gogora etorri zitzaion behin aititak Bermudetako triangeluari buruz kontatu zion istorioa. Esan zionez, Bermudetako triangeluan zulo handi bat zegoen, gaur egun harriekin eta makilekin estalita dagoena, baina libratuko balute, lurrean dagoen uraren zati handi bat zulo horretatik joango litzateke! Orduan, aititari amama bilatzen jarraitzeko eskatu zion, eta Nora udaltzain eta Ertzainen laguntzarekin, txaluparen agintea hartu eta Bermuda uhartera abiatu zen. Astebetez nabigatu ondoren, Bermudetara heldu ziren. Mapa bat hartu eta zuloa non zegoen ikertu zuten.

Urpekaritza ekipamendua hartu eta uretan murgildu ziren, itsas hondoan zegoen zuloa libratzeko. Asko kostatu zitzaien, itsaspeko baten laguntza behar izan zuten estaltzen zuten harriak eta makilak kentzeko. Hainbat orduren ostean, zuloa libratzea lortu zuten eta Bilborako bidea hartu zuten berriz ere.

Hurbiltzen ziren bitartean, alaitasun eta musika oihuak entzuten zituzten. Bilbo hondotik aterata zegoen!!! Baina Nora ez zegoen pozik aitita eta amama aurkitu arte. Bat-batean amamaren irrintzia entzun zuen, korrika hasi zen eta hirurek besarkada handia eman zioten elkarri.

Hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera dadila Bilboko portuan.



ERLOJU... ADIMENDUNA?

Izaro Oviacionayi Luzarraga
Deustuko Ikastola IPI

Ostegun arratsalde eguzkitsu batean, Maialen izeneko neska bat, ikastola bukatu-rik, bide aldapatsu batetik etxera zihoan, buruan bueltaka zebilkion gauza baten gogoeta sakonean murgilduta. Maialenek hamar urte zituen, apala eta eskuzabala zen eta oso ondo konpontzen zen jendearekin. Argia zen eta ikastea gustuko zuen.

Etixerako bidean, lagun batzuk topatu zituen eta haiekin hizketan jardun zuen denbora luze samar batean. Etxera heldu zenean, ama solomo-bokata eta fruta prestatzen ari zen, beraz, leiho alboko mahaian eseri eta askaria itxaron zuen.


Amak askaria prestatzen bukatu zuenean, mahaian jarri eta hitz egiten hasi ziren.

—Ama, gauza bat kontatu nahi dizut
—esan zuen Maialenek.

—Aurrera —erantzun zion amak.

—Nire lagun gehienek erloju adimen-
duna daukate eta nik ere horrelako bat nahi
nuke.

—Eta ba al dakizu zertarako balio
duen erloju horrek? —galdetu zuen amak.



—Baa... nik ulertu dudanaren arabera bideojokoetara jolasteko erabil daiteke... —hasi zen umea.

—Orduan, suposatzen dut bakarka bakarrik jolastu daitekeela eta lagunak alde batera utzi beharko direla, ez?

—Bai, hala da —baieztatu zuen Maialenek buruarekin baieztatu eginez.

—Baina ez zaizu iruditzen horrela jolastea askoz aspergarriagoa dela? —jarraitu zuen amak.

—Seguraski —pentsatu zuen neskatxak.

—Beno eta zeozer gehiagotarako erabil daiteke? —esan zuen amak baso bete ur edan ondoren.

—Jakina, beste hainbat gauzatarako erabil dezakezu, adibidez, egiten dituzun pausoak zenbatzeko.

—Laztana, baina zuk zer uste duzu dela garrantzitsuagoa: ibiltzen zauden bitartean bizitzen eta ikusten dituzun gauzetaz gozatzea edo ibiltzean zenbat pauso ematen dituzun jakitea? —kontraeraso zion amak, elkarriketa sutsu batean sartzen ari zirela konturatuz.

—Egia esanda... inportanteagoa da esan duzun lehena —gogoetatu zuen Maialenek.

—Ondo pentsatua maitea. Jada konturatu zara egiten dituen gauzetatik bi ez direla zuk esaten zenuen bezain erabilgarriak.

—Hori egia da, baina oraindik gauza gehiago egin ditzake —erantzun zion umeak etsi gabe.

—Ea ba, kontaidazu —esan zuen amak interesaturik.

—Hauxe da egin dezakeen beste gauza bat. Wifira konektatu daiteke! Honek gauza bat ekartzen dit gogora. Badakizu zer den?

—Nola jakingo dut ba nik!


—Entzun orduan, kontatuko dizudan gertaera harrigarria da eta.

—Ez luzatu gehiago eta kontatu behingoz! —esan zuen amak barre algaraka.

—Ostiral arratsalde batean —hasi zen Maialen— plastika saioa hasi berria zen eta andereñoak jakinarazi zigunaren arabera, egun hartan Jeff Koons artistari buruz arituko ginen. Horretarako, arbel elektronikoa erabili beharko genuen (wifira konektatu daitekeena). Artistari buruz hitz egin eta gero, kahoot bat egingo genuela esan ziguten. Beraz, gutako bakoitzak bere ordenagailua metalezko kutxa erraldoitik atera, eta jarduera egiteko prestatzen hasi ginen.

Guztia prest zegoenean, bat-batean, ordenagailu guztiak eta arbela deskonektatu egin ziren eta sarean sartu ezinik gelditu ginen. Giro ikaragarria sortu zen, oihuak eta barreak entzuten ziren leku guztietan eta irakaslea gu kontrolatu ezinik egon zen. Lasaitzea lortu genuenean, irakaslea Laia bidali zuen alboko gelara afera zabaltzeko. Umea itzuli zenean, kontatu zigun beste gelak ere gure egoera berean zeudela. Horrek gauza bat bakarrik esan nahi zuen: wifia ikastola osoan joan zela. Ezer egin gabe gelditu ginen plastika saio osoa, antza irakaslea ezin zuen aurrera egin kahoot-a egin ezean.

—Istorio harrigarria, bai —baieztatu zuen amak kokotsa laztantzen zuen bitartean. Baina zer ikusi dauka horrek erlojuarekin?



—Horrek esan nahi du klasekide guztiok erlojua izan bagenu, kahoot-a egin ahalko genukeela —arrazoitu zuen Maialenek.

—Baina orduan erlojuari ere wifia joango zitzaion.

—Horretan oker zaude, ama. Ahaztu egin zaizu gailuak bere interneta duela —esan zuen umeak garaile aurpegiarekin.

—Egia da! Ahaztua nuen. Dena den, nire iritziz, plastika eskuekin gauzak sortzeko da, eta ez pantaila bati begira egoteko!

—Arrazoi duzu, eskuekin gauzak egitea askoz dibertigarriagoa da —mokadu bat hartzeko gelditu ziren eta horrela jarraitu zuten.

—Zure aurpegia ikusita, uste dut erlojuak oraindik gauza gehiago egiten dituela, ez?

—Asmatu duzu, egin dezakeen beste gauza bat zure buruari argazkiak egitea da.

—Kontxo, hori bai dela harrigarria —esan zuen amak txundituta.

—Bai, nik ere halaxe pentsatu nuen kontatu zidatenean.

—Nire kasuan behintzat, nahiago dut inguruan dudanari argazkiak atera nire buruari baino.

—Zergatik? —galdetu zion alabak.

—Adibidez, urrutiko leku bat bisitatzera banoa, seguruenik ez dudalako inoiz gehiago ikusiko eta gustatuko litzaidakeelako oroigarria betirako eskura izatea. Nire burua, aldiz, bizitza osoan zehar ikusi ahal izango dudalako ispilu arrunt batean —erantzun zion amak arrazoi on batekin.

—Bai, baina noizbehinka zure buruari argazkiak ateratzea ere ez dago txarto, ezta?

—Noski ez dagoela txarto, baina ez da behar erloju batek egitea.

—Egia biribila —onartu zuen Maialenek— baina oraindik gauza bat gehiago egin dezake— adierazi zion amari esperantza izpi batekin.

—Uff, azkena, eskerrak —esan zuen amak hasperen eginez baina irribarre txiki batekin ahoan.

—Egin dezakeen azken gauza, amak edo aitak non zauden jakitea da.

—Baina zuk ez duzu nahiago, adibidez, lagunekin joaten zarenean lehenago zuk esatea, “zortzietan San Pedro parkean egongo naiz”, eta zuk nahi duzun lekura joatea adostutako ordura arte?

—Mmm —Maialenek ondo pentsatu zuen galdera hura, izan ere, ez zuen bere azken aukera alferrik galdu nahi. Gutxi gorabehera minutu bat pasatu ondoren haxe erantzun zuen neskatzak.

—Arrazoi osoa duzu amatxo, ez da beharrezkoa zuk ni non nagoen jakitea momentu oro —onartu zuen umeak.

—Horixe bera! Ni zutaz fidatzen naiz eta badakit ez zarela nik baimendu gabeko lekuetara joango —esan zuen amak Maialeni besarkada bero bat ematen zion bitartean. Umeak panpina bat izango balitz bezala estutu zuen ama, belarrira esanez arratsalde hartan asko ikasi zuela. Momentu hartan bertan, etxeko ateko giltza sarrailan biratzen entzun zuten eta instant batzuk geroago aita sartu zen etxera.

—Aita! —oihukatu zion alabak, korrika hurbiltzen zitzaiola —ez dakizu zenbat ikasi dudan gaur!

—Zelako misterioa! Zer ikasi duzu oraingoan, laztana?

—Gaurko irakaspenak irakatsi dit batzuetan ondo pentsatu behar dela, nahi ditugun gauzak benetan behar ditugun eta erabilgarriak diren ala ez. Batez ere adimen artifizialarekin.

—Egia da, horri etekin handia aterako diozu bizitza osoan —erantzun zion aitak.

—Afaltzeko ordua al da jada? —itaundu zuen jarraian aitak gosez amorratzen.

—Nire erloju ez adimentsuak ezetz dio —esan zuen Maialenek aita aho bete hortz utzirik.

ELKAR MUGITUZ LORTUKO DUGU

Maddi Irurtia Orbe
Karmelo Ikastola IPI



Tik-tak, tik-tak, tik-tak...
Rin! Rin!

—Hiart, ordua da! Ez zara eskolara helduko!

—Banoa, ama!

Hiart, gosaldu, jantzi eta gero, eskolarako bidean doa poz-pozik, baina eskolako atean zenbait kidekin topo egin du:

—*¡Ja, ja! ¿Habéis visto a la niña vasca que da naska?* —dio Manexek.

—*¡Qué cringe da!* —dio Alejandrok.

—*¡Es porque no tiene suficiente dinero! ¡Qué cutre!* —esan du Naiarak.

Hori ikusterakoan, Oihane sartu da elkarrizketan:

—Ei, utzi bakean Hiart! Ez duzue zirikatu besterik egiteko! —defendatu du Ohianek.

—Lasai ohituta nago, ez diet kasurik egiten... —esan du Hiartek, etsipenez.

Txirrin-txirrin!

—Goazen, ez gara helduko eta —dio Oihane larrituta, eskolako txirrina entzutean.

Ikasgelara sartu, eta irakaslea sartu denean denak eseri dira.

—*¡HOLA, TRONCO! ¡BRO!, ¿¡QUÉ PASA TIO!? ¿QUÉ TAL, CHAVALAS?...*

Irakaslea konturatu da gazteleraz hitz egiten ari direla, eta errieta egin die:

—Zuek! Euskaraz hitz egin behar dugu, —dio Ramoma irakasleak— bestela hizkuntza eder hau galdu egingo da! A! Eta gogoratu bihar txangoa daukagula.

Lantzeko inauteriak ezagutzera goaz. Bihar mesedez euskaraz hitz egin, herriko edonorekin topo egiten baduzue, seguru jakingo dutela.

—*¡Qué pesada la profe esta con el vasco!* —dio Joelek, euskaraz hitz egiteaz aspertuta.

—Nik uste arrazoa duela! Guk egiten ez badugu... —dio Ohianek Hiarti begiratzuz —Hiart, ondo zaude?

—Munstroek zeozer egiteko beldur naiz, irteeran zeozer gertatuko den sentazioa daukat —Hiartek.

—Zein munstro? —Oihanek.

—Manex, Naiara eta Alejandro. —Hiart isilik geratu da, horretan pentsatzen. Biharamunean, Hiart esnatu eta munstroetan pentsatzen hasi da, eta eskolara goizago joatea pentsatu du, horrela, ez du munstroekin topo egingo.

—Agur, ama —dio Hiartek beldurrez, eta tristuraz. Oihanerekin egin du topo.

—Kaixo —Oihane galdezka— Zer? Munstroak?

—Bai —Hiart, horretan pentsatzen.

—Lasai, zurekin nago.

—*¡Hola!* —Joelek gazteleraz.

—Hori ere ez dakizu euskaraz esaten? —Oihanek barrezka.

—Kaixo... —Joelek hasperen eginez.


—Mua, mua, mua... Joel y Hiart —Manexek, bihotz sinboloa eginez eskuekin.

—Utzi bakean! —Ohianek.

—*No me gusta que me hable así una chica como tú.* —dio Manexek, txarto erantzuten.

—Goazen, berdin du. —esan du Hiartek.

—Bikoteka jarri, mesedez! —esan du oihuka irakasleak. Hiart Oihanerekin jarri da. Eta Joel, berriz, bere lagunekin gazteleraz hitz egiten ari da.



Guztiak bikoteka eseri ondoren, autobusa mugitzen hasi da...

—Bidaia luzea da hau. Komunera joateko herrira sartu aurretik dagoen taberna batean geldituko gara, baina adi ibili, presaka gaude eta ez dugu inor itxarongo —dio irakasleak. Handik ordu eta erdira, autobusa gelditu egin da komunera joan daitezen.

—Komunera noa —dio Hiartek.

Ez joan Lantzera ni gabe! —begi batekin keinu eginez. 😊

—Ados hemen itxarongo dizut —Oihanek.

Bat-batean, irakasleak dio joateko ordua dela. Oihane eta Joel konturatu direnean Hiart falta dela, berari ohartaraztera joan dira. Horren ondorioz, autobusa galdu dute.

—Eeeeezzzzz!!!!!!! —guztiek batera, larrituta.

—¿Y qué vamos a hacer ahora? ¡¡¡No deberíamos haber venido!!! —esan du Joelek haserre.

Bide bat ikusi dute, pentsatzen herrira eramango dituela. Jarraitu egin dute kobazulo, batera heldu arte.

—Ikusi, ikusi hor dagoen kobazuloa! Hor sartuko gara.

Oihaneri kasu egin eta kobazulora sartu dira. Kobazulo barruan zeozer dago idatzita.

—Ikusi! Horman “Ikea” jartzen du. —Oihanek— Kobazulo hau berrietan atera zena da!

—¡Qué dices, pero si es solo un grafiti cutre! —esan eta harri bat bota dio hormari.

Harriak “Ikea” hitza ukitu bezain laster haurrak desagertu egin dira. Bat-batean, beste leku baten agertu dira.

—Umez inguratuta gaude, eta mahaiak eta arbel bat dago hor... Eskola baten barruan gaude?!! —Bat-batean ume batek beste baten eraztun bat pasatu dio.

—Goazen galdetzeraz zer den hori! Aizu, zer da hau?

—Ixo! Ezin digute entzun —Izkutuan eta ahopeka hitz eginez— Itxaron... ez dakizue eraztunarena?

Lagunak:

—Ez.

Joelek bi harri ikusi ditu: kobazuloan bota duena, eta beste bat. Hartu, eta poltsikoan gorde ditu.

—Euskaraz hitz eginez gero, eraztun bat pasatzen dute, eta klase amaieran eraztuna duena zigortu egiten dute. Batzuetan erregela batekin atzamarretako hezurretan jotzen gaituzte, besteetan “no hablaré más en vasco, hablaré sienpre en español” idaztera.

—Nola duzu izena? —galdetu du Ohianek.

—Maitane Aizkorrieta —dio neskatoak.

Bat-batean Hiart zorabiatu egin da eta konortea galdu du.

—Ondo zaude, Hiart? —dio Joelek arduratuta.

Hiart denbora bat pasa eta gero esnatu da eta esan du larrituta:

—Denboran atzera egin dugu! Francoren garaian gaude. Hori nire birramona da!

Bat-batean atzetik andre batek belarritik tira egin dio esanez: —¡Te he escuchado hablar en vasco! ¡Ven conmigo!

Hiart minaren minez negarrez eta kexuka hasi da, eta andreak esan dion tokira joan da, andreak belarritik helduta daukan bitartean.

Joelek, haserrearen haserrez, harri bat hartu eta aurpegira jaurti dio andreari.

Segituan, Joel, Hiart eta Oihane desagertu egin dira, eta beste toki batean agertu dira.

—Eta orain non gaude? —Oihanek.

Hor daudela, neska gazte eta euskaldun batek euskaraz entzun eta gordeleku batera eraman ditu.

Gordelekuan, beste hainbat neskata ikusi dituzte suaren inguruan dantzan. Joelek oihukatu du: “sorginak!”.

—Joel ez oihukatu! Ez dizugu ezer egingo, lasai.

—Nola dakizue nire izena? Sorgin maltzurak zarete!!! —dio Joelek izututa.

—Joel, zure kamisetan “Joel” jartzen du!!! —dio neskata gazteak.

—Hil egin nahi gaituzue eta jan!!! —Joelek.

—Sorginok ez dugu horrelakorik egiten! Jendea sendatzen dugu. Txarto pasatzen ari gara. Hemen gauden guztiak kanpokoengandik babesten gaude. Inkisidoreak, beraiek dira txarrak! Egutero, gutako bat harrapatu, aurpegia uretan sartu eta hil arte itxaroten dute. Bestela sutan erretzen gaituzte edo burua mozturik hiltzen gaituzte. Hori dena gure hizkuntza eta kultura babesteagatik. Txarrak izango bagina, zu ez zinateke hemen egongo. Mesedez ez esan inori non gauden.

Joelek beste harri bat hartu eta bota egin du, eta berriro desagertzen dira.

—Eta orain non gaude? —Hiartek.

—Hara... guztia teknologia da! —dio Oihanek— Ikusi horko auto hori... hegan egiten du!

—Etorkizunean gaude —Joelek.

—Espanglisez hitz egiten dute —Hiartek

—Zer? —Joel eta Oihanek.

—Ingeleseztan eta gaztelaniaztan hitz egiten dutela esan nahi dut —Hiartek.

—Espera... orduan euskara ez da existitzen etorkizunean? —Joelek— *¿Qué ha pasado con el vasco?*

Mutil bat hortik pasatu, eta esan die:

—*¿Vasco? What's that? El language que desapareció porque nobody lo usaba?*

Hori entzuterakoan, Joel txarto sentitu da bere buruarekin, eta amorrut, beste harri bat bota du.

Hasieran galdutako lekuan agertu dira.

—Autobusa gure bila dator! —Oihanek, pozaren pozez.

Autobusa gelditu eta Joelen lagunak Joelengana joan dira:

—*¿Bro, qué te ha pasado? Te lo has perdido todo, ¿dónde te has metido?* —Joelen lagunak.

—Hemendik aurrera niri euskaraz hitz egin, ez dadila hizkuntza eder hau nire erruz galdu. Guztiok hitz eginez gero, ez da hilko. Elkar mugituz egingo dugu! —dio Joelek. Hiartek musu eman dio masailean.



ETXERAKO BIDEAN

Haizea Mimenza Ayo
Abusu Ikastola HLBHIP

Gaur irakurriko duzun istorio harrigarri hau duela urte asko gertatu zen. Jarri eroso, zabaldu belarriak eta adi entzun, istorioa hastera doa eta. Bazen behin, hamaika urte zituen Naia izeneko neska bat. Naiak ile marroi argia eta luzea zuen, eta begi txiki urdinak. Beti zeraman jantzita bere amak jositako jertse marradun zuri eta beltza, galtza elastiko beltz luzeak eta lokarridun zapatila batzuk. Duela lau urte ama hil zenetik, bere aitarekin batera itsasargi batean bizi zen. Naiak han ikasten zuen irakurtzen, idazten, matematikako ariketak egiten... Bere aitaren laguntzarekin, noski. Naiaren aitak Mikel izena zuen. Mikel lasaia zen, eta bera arduratzen zen gauero itsasargiaren argia pizteaz itsasontziek harrien kontra talka egin ez zezaten eta etxerako bidea topa zezaten. Batzuetan, Naiaren laguntzarekin batera.

1. atala: Non nago?

Gau batean, Naiaren aita itsasargiko argia piztera zihoan.

—Naia, itsasargiaren argia piztera noa. Bazatoz? —galdetu zion aitak.

—Ez, mila esker, aita. Itsasertzetik paseo bat ematera noa —erantzun zion.

—Ondo da, baina kontuz ibili —esan zion aitak.

Aitak itsasargiaren argia pizten zuen bitartean, Naia itsasertzetik paseoan zebilen. Gau hartan, itsasoa oso bortitz zegoen, ekaitza zetorren eta. Paseatzen zegoen bitartean, konturatu gabe estropezu egin, harri baten kontra buruan kolpe bat hartu, konortetik gabe geratu eta uretara erori zen. Itsasoaren ondorioz, itsasargitik gero eta urrunago joan zen. Azkenean, Naia itsasoaren erdian esnatu zen.

—Non nago? —esan zuen nahastuta.

Bat-batean, bere atzean ahots batek ezan zion: “Hauek itsas munstroaren lurra dira, gu bikingoak gara eta gure herrixkatik gatoz”. Orduan, Naia biratu egin zen eta bere atzean itsasontzi bat eta, haren gainean, bikingo batzuk ikusi zituen.

—Barkatu... baina, nire etxerako bidea adieraz diezadakezu, mesedez? Itsasargian bizi naiz —galdetu zuen.

—Guk ez dakigu non dagoen itsasargia, baina ziurrenik gure herrixkako norbaitek bai. Nahi baduzu, gure herrixkara eraman ahal zaitugu —esan zuten bikingoek. Naiak baietz egin zuen buruaz. Beraz, itsasontzira igo, lehortu eta herrixkara abiatu ziren.

Herrixkara heldu zirenean, Naia guztiei galdezka hasi zen ea bazekiten nola itzuli itsasargira. Denek ezetz esan zuten, Naia errenditzeko zorian zegoen, bikingo batek esan zion arte: “Hango egurrezko txabolan, agure bat bizi da. Galdeiozu berari, bera da gure herrixkako jakintsuena. Ziur berak badakiela nola itzuli zaitezkeen itsasargira”. Orduan, Naia egurrezko txabolara abiatu zen, agureari galdetzeko.

Txabolara iristean, Naiak atea jo zuen, baina inork ez zuen erantzun. Beraz, baimenik gabe sartzea erabaki zuen. Txabolara sartzean, agure bat ikusi zuen buruko baten gainean eserita, meditatzen.

—Barkatu. Ba al dakizu nola itzuli naitezkeen itsasargira? —galdetu zion Naiak.

—Kaixo neskatxo. Ni Alferoblix agurea naiz. Ez dakit nola itzuli zaitezkeen itsasargira, baina badago itsasargira gidatu ahal zaituen mapa bat —erantzun zion Alferoblixek.

—Mapa eman ahalko zenidake? —esan zion Naiak.

—Gauza ez da hain erraza. Mapa lortzeko hiru frogak gainditu beharko dituzu: aizkora jaurtiketa txapelketa, arrantza txapelketa eta olagarro zaindariari aurre egitea. —erantzun zion Alferoblixek.


—Ondo da, noiz egingo ditut frogak? —galdetu zion Naiak.

—Frogak bihar goizean egingo dituzu —erantzun zion Alferoblixek.

—Ondo da —esan zuen Naiak.

Naiak Alferoblix agurea agurtu eta bere txabolatik irten zen.


Txabolatik irtetea, konturatu zen iluntzen hasi zela eta afaltzeko ordua zela. Orduan, bikingoak janariz betetako mahai erraldoi baten inguruan zeudela ikusi zuen, eta gose izugarria sartu zitzaion. Zorionez, bikingoek beraiekin joateko keinua egin zioten Naiari, eta noski, Naiak baietz esan zuen.



Oso ondo pasatu zuen. Mahaia janariz eta edariz gainezka zegoen: haragia, barazkiak, arraina... Hain ondo pasatzen ari zen non ez zen konturatu oheratzerako ordua zela, beraz, Naia bikingoek utzitako txabolara joan zen lotara. Hurrengo egunean hiru frogak gainditu nahi bazituen, atsedean hartu behar zuen.

2. atala: Aizkora jaurtiketa txapelketa

Goiza zen dagoeneko, eta Naiak gosalduta ostan lehenengo frogatu zuen: aizkora jaurtiketa txapelketa. Egia esan, Naiak ez zuen gogo handirik lehen frogatu horretarako, aizkorek beldurra ematen ziotelako. Baina, itsasargira itzuli nahi baldin bazuen, lehen frogatu hori gainditu beharko zuen, nahi ala ez. Gosalduta eta aizkora jaurtiketa txapelketarako prestatzen hasi zen. Txapelketa herrixkaren erdigunean egingo zen eta Alferoblix izango zen epailea. Naia txapelketa hasteko prest zegoen.



—Ondo da, nola jolasten den errepasatuko dugu. Lehenik, jaurtitzaile bakoitzak aizkora bat hartu eta aurrean duen dianara jaurtiko du. Ondoren, nik irabazlea nor den esango dut. Helburua aizkora dianaren erdigunera jaurtitzea da. Nahiz eta ez jo dianaren erdigunean, gehien hurbiltzen den jaurtitzailea izango da irabazlea. —esan zuen Alferoblixek.

Alferoblixek hitz egiten amaitu orduko, aizkora jaurtiketa txapelketari hasiera eman zitzaion. Naiak, lehen frogatu horretan, beste bi bikingoren kontra lehiatu beharko zuen. Beste bi bikingoek dagoeneko beraien aizkora dianara jaurti zuten eta Naiak oraindik ez zuen bere aizkora hartu. Beldurrez jota zegoen, ez zuen aizkora astun hori hartu nahi. Eta gainera, beste bikingoen aizkorek ia dianaren erdigunean jo zuten.

Naiak ezin zuen pentsatu zer gertatuko zen frogatu hori gainditzeko ez bazuen. Ezingo zen itsasargira itzuli!

Azkenean, aizkora hartzea lortu zuen eta jaurtitzeko prest zegoen. Indarrez hartu, begiak itxi eta aizkora jaurti zuen. Naia ez zen ausartzen begiratzera. Erdigunean jotzea lortu ote zuen? Eta erdigunera jaurtitzea lortu zuen! Bai, halaxe zen. Naiak lehen frogatu gainditzeko lortu zuen, eta dagoeneko bi frogatu besterik ez zitzaizkion falta mapatu lortzeko. Denak txaloka eta oihuka zeuden. Alferoblixek Naia zoriondu zuen eta bigarren frogarako prestatzen hasteko esan zion: arrantza txapelketa.

3. atala: Arrantza txapelketa

Naia, lehen frogatu irabazi ondoren, bazkarian oso pozik egon zen, Alferoblix hurbildu zitzaion arte.

—Naia, arrantza txapelketa hastear da, etorri nirekin, mesedez —esan zion Alferoblixek.

Orduan, Naia urduri jartzen hasi zen. Bat-batean, itsasoaren alboko zegoen herrixkaren ertz batera iritsi ziren. Han, beste bikingoak eta bi kanabera eskuan

hartuta zituen bikingo bat zeuden haien zain. Naiari bi kanaberadun bikingoa hurbildu zitzaion eta bat eman zion. Orduan, Naiak arrantza txapelketan bikingo horren kontra lehiatu beharko zuela ulertu zuen. Egia esan, ez zegoen bereziki urduri, bere aitarekin behin baino gehiagotan arrantzan joan izana zelako eta nahiko ondo egiten zuelako. Momentu horretan, Alferoblixek atentzio pixka bat eskatu zuen, bera izango baitzen epailea.

—Ongi da, arrantza txapelketaren oinarriak errepasatuko ditugu. Helburua ahalik eta arrainik handiena arrantzatzea da, handiena harrapatzen duenak irabaziko du. Gogoratu, nik “hasi” esaten dudanean, kanabera uretara jaurtiko duzue eta arrantza txapelketa hasiko da —amaitu zuen Alferoblixek.


Naia prest zegoen, kanabera jaurtitzeko zorian.

—Hasi! —oihukatu zuen Alferoblixek.

Naiak eta beste bikingoak aldi berean jaurti zuten kanabera eta arrantza txapelketari hasiera eman zitzaion. Naiak arraina beste bikingoak baino lehenago arrantzatu nahi zuen, baina ez zen horrela izan. Beste bikingoak berak baino lehenago arrantzatu zuen, eta gainera, arraina nahiko handia zen.

Naiak ez zekien arrain hori baino handiagorik egongo zen itsasoan, baina orduan, bere kanabera dardarka hasi zen.

Bazirudien Naia itsasoko arrainik indartsuena arrantzatzeke zorian zegoela. Tira eta tira zebilen, kanabera atera ezinik, bat-batean ateratzea lortu zuen arte. Naiak arrantzatutako arraina itsasoko indartsuena eta handiena zen. Arrain hori erraldoia zen, hortz zorrotz eta handiak agerian zeuzkana. Beldur apur bat ematen zuela onartu behar zuen. Denak txaloka eta oihuka hasi ziren. Alferoblixek Naia agurtu zuen eta amaierarako gero eta gutxiago gelditzen zitzaiola esan zion.



4. atala: Olagarro zaindariari aurre egitea

Naiak ordu bateko atsedenaldea zuen azken froga hasi aurretik: olagarro zaindariari aurre egitea. Naiak azken froga ahalik eta arinen hasi nahi zuenez, bera eta Alferoblix frogaren lekura bost minutu lehenago joan ziren: haitzulora. Hara sartzera, ez zeuden beste bikingoak zain Naiak uste zuen bezala. Haien zain putzu baten barruan zegoen olagarro erraldoi bat besterik ez zegoen, garro artean kutxa bat zuena.

—Ni olagarro zaindaria naiz eta mapa hau zaintzearen ardura dut. Mapa nahi baduzu, nik ezarritako froga gainditu beharko duzu: asmakizuna. Jende asko saiatu da baina inork ez du lortu; mapa lortzeko asmakizuna asmatu beharko duzu. Zure aurrean bost minutuko harea-erloju bat jarriko dut eta denbora horretan ez baduzu asmakizuna asmatzen, ezingo dizut mapa eman. Prest? —esan zuen olagarro zaindariak harea-erlojua kokatzen zuen bitartean.

Naiak baietz egin zuen buruaz eta Alferoblix txoko batean eseri zen. Olagarroa hitz egiten hasi zen.


—Zer da zenbat eta gehiago irauten duenean orduan eta luzeagoa egiten zaiguna? —galdetu zuen olagarroak.

Naia buruari bueltak ematen hasi zen asmakizuna asmatu ezinik, eta gainera, gero eta denbora gutxiago zuen. “Ondo da. Zenbat eta gehiago irauten duenean... luzeagoa egiten zaiguna... Zer ote da?” errepikatzen zion behin eta berriz Naiak bere buruari. Orduan, zenbat denbora gelditzen zitzaion jakiteko harea-erlojuari begiratu zioenean zerbaitez konturatu zen.


—Erantzuna denbora da! Denborak zenbat eta gehiago iraun, orduan eta luzeagoa egiten zaigu! —oihukatu zuen Naiak. Olagarroak, erabat harrituta, erantzun zuzena zela esan zion eta kutxa hartzeko baimena eman zion. Gero, kutxa garroetatik askatu eta lurrean utzi zuen. Hartu baino lehen, Naiak Alferoblix eskerrak eman zizkion eta besarkada bat eman zion. Orduan bai, kutxa irekitzeko prest zegoen, eta bere indar guztiekin hartu zuen. Azkenean, Naia itsasargira itzuli ahal izango zen! Ziur bere aita oso kezkatuta egongo zela. Naia kutxa irekitzeko amorratzen zegoen, mapa esku artean edukitzeko amorratzen. Baina, kutxa irekitzean ez zuen mapa aurkitu, itsu uzten zuen argi bat baizik. Argi hori biraka eta biraka zebilen, gelditu gabe. Orduan, Naia itsasargia ikusten hasi zen, eta harea bustia sentitzen, eta bat-batean esnatu egin zen. Bere aita korrika hurbildu zitzaion.

—Naia, ondo zaude? Erori egin zara eta konorterik gabe gelditu zara —esan zion bere aitak.

Bikingoekin bizitako guztia amets bat izan zen!!! Amets ahaztezina.



AMAIERA



C
KATEGORIA
(DBHko 1. eta 2. mailak)



ZORITXARREZ, EZIN DA EZER EGIN

Xabier Gómez Salas
Artxandape Ikastola HLBHIP

2024ko martxoaren 26a, Bilbo
Joseren ikuspuntua
Oraina

— **U**tz nazazue joaten! Lagundu! Lagundu, mesedez!
Nola zen posible, Jose, 11 urteko mutil arrunt-arrunta, bahitua izatea, zergatik hura? Eguerdia zen, kaleko jendeak harrituta begiratzen zuen, baina inork ez zuen ezer egiten. Ezagutzen ez zuen eraikin batean sartzen ari zen, haren bahitzaileek behartuta. Nahiz eta etsaien aurka egiten saiatu, ezin zuen ezer egin. Bahitzaileak hura baino askoz indartsuagoak ziren eta, gainera, bost ziren.

—Lagundu! Lagundu, mesedez!

Basurtu aldean zegoen, “Lezeaga kalea” ikustea iruditu zitzaion. Bere amak noizbait esan zion ezezagunekin ez fidatzeko, zelako arrazoia zuen amak! Hori gogoratu izan balu...

Tok-tok!

Behatxulotik begiratzean gizon bat ikusi zuen atearen beste aldean. Gizon altua zen, ilegorriduna eta nahiko arraro jantzita zihoan.

—Nor zara?

—Leku hobe batera eraman nahi zaitut.

—Nor zara?

—Horrek ez du garrantzirik —baieztatu zuen gizonak.

—Nire amari galdetu behar diot, eta ez dago etxean.

—Ez du garrantzirik, etorri, etorri.

—Baina, zer esan nahi duzu “leku hobe bat” esatean? —galdetu zion Josek.

—Leku bat non ez zaren inoiz bakarrik egongo.

—Eta zergatik fidatu behar naiz zurekin?

—Eta zergatik ez? —arrazoitut zuen gizonak.

—Mmm... ongi da, goazen.

Oraina

Gela batean sartu zuten. Gelako hormak berdeak ziren, eta zorua egurrezkoa. Hormatik eskegita, ispilu bat zegoen. Gela erdian, ohe txiki bi zeuden, ohe bakoitzaren alboan, gau-mahai bat zegoen eta, horman, barrotedun leiho bat, eta leihopean mahai handi bat. Gainera, gelakide bat zuen. Gelakideak etsia zirudien, bizitzeko asmorik gabekoa.

—Nor zara zu? —galdetu zuen Josek. Ez zegoen erantzunik...

—Nor zara zu? —galdetu zuen berriz. Ez zegoen erantzunik...

Bere gau-mahaian, beste gauza askoren artean, haren hortzetako eskuila eta pasta, haren liburuetatik gogokoen *Linguae Vasconum Primitiae* izenekoa, eta bere iratzargailua zeuden.

—Zergatik daude nire gauzak hemen? —galdetu zion bere buruari.

Mahai handian, aldiz, medikamentu kantitate mordoa zegoen, ez zuen inoiz hainbeste medikamentu elkarrekin ikusi. Hura drogatzeko izan ahal ziren?

Denborarik galdu gabe, handik ihes egiten saiatu zen. Atea irekitzean, korridore bukaezin bat ikusi zuen, kilometro bat inguru neurtzen zuela zirudien!

—Alferrik da alde egiteko ahalegina —esan zuen gelakide ezezagunak. Kasurik egin gabe abiatu zen Jose askatasunaren bila.

—Ezin da hain urrun egon irteera —pentsatzen zuen.

Irteerara ailegatu zenean, giltzapetuta zegoela erreparatu zuen.

—Zer egiten duzu ateratzen saiatzen? —galdetu zion beti irribarre maltzur bat zuen neska lodi batek.

Neskak gizonaren jantzi bera zeraman, arraroa noski. Ez zuen ulertzen zergatik bahitzaile bat urdin edo berde argiz jantzita joan behar zen, albaitaria zirudien. Orduan, neskak berriz gelara eraman zuen Jose.

Josek ezin zuen sinetsi. Ateraino joatea lortu zuen giltzapetuta zegoela ohartzeko.

Zer egingo zuen orain? Nork edukiko zituen giltzak? Gizon ilegorriak agian?

—Ba al dakizu nork dituen giltzak?

—Jakingo banu ez nintzateke hemen egongo —erantzun zion gelakideak.

—Moduren bat egon beharko da ateratzeko ...

—Ez. Ez dago modurik. Zoritxarrez, ezin da ezer egin.

Arantzaren ikuspuntua

Ordu batzuk lehenago

—Norengana joango gara gaur? Peru? —galdetu zuen Arantzak

—Jose Hernandez deitutako pertsona batengana —erantzun zuen Peruk, gizon altu eta ilegorridun batek.

Peruk psikologia ikasi zuen, hortaz, adin eta pertsonalitate guztietako pertsonak konbentzitzen aparta zen.

—Joan zaitez harengana, ni furgonetan geratuko naiz —adierazi zuen Arantzak.

Peru furgonetatik atera eta denbora bat pasata, Joserekin bueltatu zen. Hura furgonetaren atzeko partean utzi zuen, laguntzaileen konpainian, eta Lezeaga kalera abiatu ziren.

—Nola duzu beti horrelako irribarrea, gauza gogor hauek ikustean? —galdetu zuen Peruk.

—Nahiz eta batzuetan tristea izan, barru-barruan, egiten ari garenak pozten nau.

Oraina

Lezeagara ailegatzean Jose furgonetatik atera zuten haien hiru laguntzaileen laguntzaz.

—Utz nazazue joaten! Lagundu! Lagundu, mesedez!

—Korridore fondoan instalatzeko esan dit jaunak, Alfredorekin batera. Zelako pare egingo duten! —esan zuen Arantzak ironiarekin.

—Goazen 97. gelara —esan zuen Gaizkak, laguntzaileetako batek.

Arantza irteera zaintzen geratu zen, eta handik denbora gutxira barru Jose ikusi zuen atera nahian.

—Zer egiten duzu ateratzen saiatzen? —galdetu zuen Arantzak.

Jose gelara eraman ondoren, Arantza eta Peru, atsedenaldia aprobetxatuz, Lezeaga plazako kafetegi batera joan ziren.

—Zelako eguna izaten ari den gaur; denbora guztian gure kontra egiten du —adierazi zuen Peruk.

—Egia, ez da inoiz geldirik egoten. Berdin da zer egin, ez da gurekin fio.

—Badirudi ez dakiela laguntzen ari garela.

—Uste dut alzheimerra duela —gaineratu zuen Arantzak.

—Agian... Bere etxera joatean, amarekin gauza bat kontsultatu behar zuela esan zidan. Ziur aski arrazoia izango duzu.

—Eskerrak korridore amaierako gelak fortifikatuta daudela alde ez egiteko. Hori aprobetxatuz, alzheimerra duten guztiak leku berean ipintzen ditugu, horrela, ondo daudenek ez dute zertan haiekin egon.

—Goazen bueltan Lezeaga zahar-etxera, ea Jose hobeto sentitzea lortzen dugun —baieztatu zuen Peruk.

Zahar-etxera bueltatzean...

—Zelako pena horrelako gauzak gertatzea. Gutxienez bere familiako azkena zen, hortaz, inork ez du sufrituko haren senideak ez gogoratzearren —enpatizatu zuen Peruk.

—Gaixoa, adinekoa izanda bere burua umetzat hartzea... Zoritxarrez, ezin da ezer egin —ondorioztatu zuen Arantzak.



EKARPEN BAKOITZAREN GARRANTZIA

Garazi Garcia Allende
Artxandape Ikastola HLBHIP

Leire Aguirre naiz, 12 urte ditut eta nik bizitako historia kontatzera nator. Valentziako herri txiki batean bizi naiz nire aita Jonekin, nire ama Iratxerekin eta nire 6 urteko neba Lukasekin. Nire ahizpa txikia eta biok Sario ikastolara joaten gara ikastera eta amak eta aitak arropa denda bat daukate.

Nire gurasoak oso haserre daude, beraien arropa denda nire nebari eta niri ez zaigulako gustatzen eta beti erosten dugulako arropa online. Esaten digute arropa beste herrialde batzuetatik erosten dugunean asko kutsatzen dugula, hau da, Txinako denda batean kamiseta bat erosten badut, kamiseta hori hona ekartzeko garraiatzean, asko kutsatzen dela.

Baina, nik ez dut ulertzen beste pertsona askok erosten badute zergatik ezin dudan nik erosi; horregatik ez diet kasu egiten eta online erosten jarraitzen dut. Gainera, nire lagun guztiek arropa asko dute eta online erosten dute.

Urriak 2

Egun batzuetan euri asko egin du, baina, gaur beste egunetan baino askoz ere euri gehiago ari du. Hau gertatu arren beste egun bateko errutina jarraitu dugu: gurasoak dendara lan egitera joan dira eta nire neba eta ni ikastolara.

Ikastolatik etxera joan garenean, kalean igerileku bat izango balitz bezalako putzu erraldoia ikusi dugu, kotxe guztiak apurtuta, hormak eta ateak erorita, etxeak jausita...

Lukas eta biok asko kezkatu gara ez dakigulako aita eta ama ondo egongo diren. Etxera ailegatzean dena apurtuta aurkitu dugu, baina, gehien kezkatu gaituena aita eta ama bertan ez daudela izan da. Lanean jarraituko dutela pentsatu dugu.

Momentu horretan ez dugu jakin zer egin. Biak bakarrik gaude eta ezin gara etxe barruan sartu dena bustita dagoelako: gainera, ezin diogu inori laguntza eskatu jende asko arriskuan dagoelako.

Nire lagun hoberena nire bizilaguna da. Bere etxera ez da urik ailegatu 8. solairuan bizi delako. Orduan beregana joan gara eta esan digu: *“zuek nahi baduzue nire etxean gaua pasatu ahal duzue”*.

Hau esan eta ezer pentsatu gabe baietz esan diogu. Oso eskertuta gaude gaua bere etxean pasatzen uzteagatik, bestela ez dakigu zer egingo genukeen.

Nire bizitzako gaurik txarrena pasatu dut. Nola egongo diren aita eta ama eta non egongo diren pentsatzeari ezin diot utzi.

Urriak 3

Goiza da eta aita eta ama bilatzera joan gara. Kalera irtetean jende asko ikusi dugu laguntza eskatzen eta pentsatu dugu arriskutsua izango zela ateratzea. Orduan, oso azkar joan gara dendara, etxetik oso hurbil dagoelako (2 minututara).

Denda etxea bezain apurtuta eta bustita aurkitu dugu eta gainera arropa guztia lurrean botata dago.

Dena ikusi bitartean norbait oihuka entzun dugu dendako bigarren solairuan, baina atea trabatuta dago eta ezin da ireki. Atearen beste aldean aita eta amaren oihuak entzun ditugu eta esan digute despentsa barruan ate horretako giltza dagoela.

Nire neba hor geratu da baina ni korrika joan naiz giltzaren bila.

5 minutura atea zabaldu dut. Aita eta ama ateratzea lortu dugu eta besarkada handi bat eman didate, asko lasaitu nauena.

Dena kontatu diegu: bizilagunaren etxean lo egiten geratu garela, etxea apurtuta dagoela... Hau kontatzean nire amari malko bat erori zaio begitik eta aitari begiratu dio zerbait oso larria gertatzen den momentuetan moduan.

Hau dena ikustean gogoratu dut beti esaten didatena: *“ez duzue arropa online erosi behar kutsatzen duelako”*.

Uste dut kutsatzeak arazoak ekartzen dizkiola ingurumenari. Adibidez: hemen gertatu dena. Badakit nik ez egin arren errealitatea ez dela asko aldatuko, baina bakoitzak bere aldetik apur bat laguntzen badu arazo hauek saihestuko ditugu.



Urriak 4

Gaurko gaua dendako 2. solairuko pasatu dugu eta egun guztietan etxea, denda eta kalea berreraikitzen dugu. Gainera, poliki-poliki beste herrialdeetako pertsonak laguntzera etorri dira.

Urriak 17

Egun asko lanean aritu ondoren, lortu dugu etxea lehengo moduan uztea, denda inoiz baino hobeto dago eta kalea betiko moduan egotea lortu dugu. Amesgaiztoa amaitu da, baina, beti dago zer ikasia eta esperientzia gogor honetan gizakiok ingurumenari egiten diogun kalteak bueltan eragin lezakeen hondamendia zein kaltegarria eta mingarria izan daitekeen ikasi dut. Gizakiok ingurumena are gehiago errespetatuz bizitzen ikasi behar dugu, bizitza egunero hasten delako.

SAREETAN NAHASTUA

Lili de Quadra de Pedro
Abusu Ikastola HLBHIP


Aranek ataritik bere etxera zeuden sei solairuak korrika igo zituen. Etxeko atea zabaldu, motxila lurrera bota, bere logelara korrika joan, ordenagailua zabaldu eta azkenik! Beste post bat argitaratu zuela ikusi zuen.

Aranek asteak zeramatzan Adrian izeneko mutil baten kontua jarraitzen. Argazkilaritza eta natura maite zituen, eta beti partekatzen zituen paisaia eta animalia basatien argazki izugarriak. Inoiz berarekin hitz egin ez bazuen ere, bere argazki bakoitzaren komentario feminista edo ekologistek irribarre bat marrazten zioten aurpegian Araneri. Bere perfilak gustuko zuen guztia islatzen zuela sentitzen zuen: leku naturalen lasaitasuna eta munduaren gaineko begirada bitxia. Inork antzematen ez dituen testura edo koloreak ikustarazten zituen bere argazkietan, esaldi egokiz lagunduta.

Egun batean, Aranek, lotsatuta baina ilusioz, argitalpen bati mezuz erantzutea erabaki zuen, bertako argazki bati buruz galdetzeko. Adrianen argazkietan bake handia transmititzen zion zerbait zegoen. “Non atera duzu argazki hau? Sinestezina da”, idatzi zuen atzamarrak dardarka zituen bitartean. Beldurrez eta irrikaz sakatu zuen bidaltzeko botoia.

Adrianek ordu pare bat behar izan zituen erantzuteko, baina erantzun zuenean, oso atsegina izan zen, eta argazkia non eta noiz hartu zuen azaldu zion.

Aranek lasaitu ederra hartu zuen erantzuna irakurtzean. Ezezagun batek hain modu atseginean erantzutea seinale ontzat hartu zuen.



Elkarriketa sinple hori eguneroko truke bihurtu zen. Handik gutxira hitz egiten zuten liburuez, musikaz, eta gomendioak partekatzen zituzten. Aranek 15 urte zituela esan zion eta Adrianek 16 urte zituela esan zion. Elkarriketa guztietan Adrianek oso gauza feministak eta ekologistak esaten zituen. Aranek bere marrazkiak erakutsi zizkion eta Adrianek oraindik ezagutzeko zituen tokiei buruz hitz egin zion. Aranek egunero kontatzen zien bere lagunei zeri buruz hitz egiten zuten eta Arane laster konturatu zen gero eta maiteminduago zegoela. Egunero etxera heldu eta berehala ordenagailua zabaldu eta bere mezu mordoak zituen. Mezu horiek itzelezko poza ematen zioten.

Egun batean Adrianen argitalpen batean jarrita zegoen esaldi feminista irakurri zuen Aranek: “Feminismoa egin nahi duzuna aukeratzeko gaitasuna da!” ondoren Arani beste nonbaiten irakurri zuela iruditu zitzaion eta auzoko emakume feministen kontuan sartu zen. Eguneako argitalpenean esaldi berdina idatzita zegoen. Nancy Reagan izeneko emakume baten esaldia zela irakurri zuen. Aranek Adriani galdetu zion ia nondik atera zuen esaldi hori baina berak esan zion ez zuela inondik kopiatu, berak asmatua zela. Kointzidentzia zen?

Hasieran, espazio birtual horretan bakarrik sentitzen ziren eroso, baina konexioa hain zen indartsua, egun batean Adrianek aurrez aurre geratzea proposatu baitzion.

Hiriko parke batean topo egitea erabaki zuten, Arane irakurtzera joaten zen lekuan. Mezuen bidez elkar ezagutzen bazuten ere, orduan benetakoa izango zen. Arane parkera heldu eta argazkietan ikusitako mutila bilatzen hasi zen, baina ez zuen bere antza zuen inor ikusten. Bat-batean gizon bat gerturatu zitzaion eta bera Adrian zela esan zion. Gizon horrek ez zituen 16 urte, Aranek ezin zuen zehazki bere adina asmatu baina 30 inguru izango zituen. “Zu Arane zara, ezta?” esan zion Adrianek. Aranek buruaz baietz egin zuen inguruan emakumeren bat bilatzen zuen bitartean begiradarekin. “Baina zu ez zara Adrian” esan zion Aranek. “Ni itxaroten nagoen Adrianek 16 urte ditu”. Gizonak, irribarre bat egin zuen eta esan zion: “Bai, ni Adrian naiz baina ez dizut inoiz esan 16 urte nituela, 26 ditut. Gaizki ulertuko zenuen”. Aranek mesfidati begiratu zion eta esan zion: “Baina zuk ez daukazu perfileko argazkian agertzen den mutilaren antza”. Gizonak orduan sorbaldatik besoa pasatu zion eta beragana gerturatu zuen Arane esanez: “Baietz Aranetxu, ni naiz baina 16 urte nituenean!”. Momentu horretan Aranek itzelezko beldurra sentitu zuen eta haiengana emakume bat hurbiltzen ari zela aprobeztatuz gizona bultzatu eta oihu egin zuen: “Ni ez ukitu! Gezurti! Lagundu! Lagundu!”.

Emakumea Aranerengara hurbildu zen presaka. Dena ondo zegoen galdetu zion. Aranek negarrez handik urruntzen laguntzeko eskatu zion. Parketik irten bitartean gertatutakoa kontatu zion emakumeari negar zotinka. Emakumeak etxeraino lagundu zuen Arane eta gurasoei salaketa jartzeko gomendioa egin zien.

Gaur egun, Aranek pertsonalki ezagutzen dituen pertsonak baino ez ditu jarraitzen sare sozialetan. Ezezagunek beldurra ematen diote eta kaletik bakarrik joatea ere beldurgarria egiten zaio oraindik. Baina bere psikologoak esaten dio gauza oso zail bati aurre egiten ari dela eta gutxinaka hobetzen ari dela.

...3 PUNTU...

Ane Martínez Revuelta
Deustuko Ikastola IPI

Gaur tristurak nire gorputz osoa hartu du...

Orduan honi buruz idatziko dut...

Ez dakit oso ongi nola amaituko den hau, agian, istorio hau Saturnoko eraztunetan amaituko da...

Baina, lagun batek esaten duen bezala, prozesuaz fidatuko naiz. Gauzarik hoberenak ez direlako prestatzen eta bat-batean gertatzen direlako...

Tristura

Triste gaudenean gure inguruko guztia grisa bihurtzen da...

Tristurak gure barruko zerbait lapurtzen digu. Barrutik hutsik gaudela sentitzen dugu...

Baina tristura emozio ederrenetarikoa ere bada...



Triste gaudenean, batzuetan, norbait faltan botatzen dugulako da. “Norbait” hori edonor izan ahal da: zure laguna, jada hil egin den zure maskota...

Hori oso polita da, “norbait” hori faltan botatzen duzunean asko maite duzula esan nahi du...

Maitasuna

Maitasuna arraroa da...

Gorri argiz margotu dezakegu bihotza apurtuta badugu, edo gorri ilunez maitasunez beteta badugu...

Maitasuna ez da bakarrik zure bikotea maitatzea, baizik eta, inporta zaizun jendea maitatzea...

Beraiek jakiteko zu hor egongo zarela behar dutenean...


Pertsona bakoitzarengan maitasuna desberdina da, baina maitasun guztietan dago isiltasuna, zergatia ez dakigun arren...

Isiltasuna

Isiltasuna soinurik ederrena da...

Isiltasuna dagoenean ezin da eztabaidarik egon, bakea eta lasaitasuna daude. Orduan, hitz egin ezinik gure inguruari arreta gehiago jartzen diogu, hori egitean begi bistan ez ditugun gauzez ohartzen gara...

Gure sentimenduak partekatzeko beste modu batzuk aurkitzen ditugu, adibidez, begiradak...



Begiradak

Begirada batek bakarrik ez du ezer esaten, baina aldi berean dena esaten du... Bi pertsonak begietara elkarri begiratzen diotenean aldi berean denbora gelditu egiten da eta momentu hori magikoa bihurtzen da...

Bestearen begietan ikusi ahal dute esan nahi dutena eta ez da ezer gehiago behar...

Gero, pertsona horrekin daukan adiskidetasuna handiagoa eta indartsuagoa bihurtzen da...

Egia esanda, hau uste nuena baino hobeto geratu da...

Eta tristurak nire gorputz askea utzi egin du... :)



D
KATEGORIA
(DBHko 3. eta 4. mailak)



ARDIAK

Yu Ting Ji

Colegio Nuestra Señora De Begoña LBHIP - Jesuitak Indautxu

Bazen behin, baso batean, bakarrik bizi zen hartz txiki bat, tristura eta bakardadez inguraturik zegoena. Bere itxuragatik, ez zuen lagunik, ez zegoen berarekin egon nahi zuen beste hartzik; eta are gutxiago, beste inolako animaliarik. Horregatik, etxean geratzen zen ahal zuen guztietan; hala ere, noizean behin beharrezko gauzak erostera joan behar zuen merkatura.

Egun eguzkitsu batean, erosketak egiteko asmotan garaiz altxatu zen inorekin topo ez egiteko. Zoritxarrez, bidean hartzatxoak artalde bat belardian jolasten ikusi zuen. Ardiak, berriz, ez ziren konturatu hartzak begiak josiak zituenik haien gainean.

Ardiek primeran pasatu zuten belardian zehar korrika eta biraka; airea pozez eta askatasunez beteta zegoen. Une hartan, haien barreak musikarik ederrena ziren hartzatxoarentzat. Eszena hark sakon hunkitu zuen hartz txikia, lagunak edukitzeko gogo nabaritu baitzitzaion.



—Zein pozik dauden! —pentsatu zuen hartzak ardiei begira—. Gustatuko litzaidake haiekin egotea eta batera jolastea, nahiz eta bakarrik minutu bat izan.

Hori pentsatuta, bat-batean ideia bat bururatu zitzaion: mozorrotzea. Horrela, ez zien beldurra emango haien itxurak, ardien itxura edukiko zuelako eta ez zuten errefusatu. Hartz txikiak beldur handiegia zuen baztertuta izateko; izan ere, hainbeste urtetan bakartuta egon ondoren, bere buruarengan konfiantza galdu zuen.

—Zuzenean joango banintz haiengana, uxatu egingo nituzke —pentsatu zuen berriz hartz gizajoak.

Hartzatxoak aspalditik galdutako ilusioa berreskuratu zuen momentu hartan, etsipena alde batera utzita; eta irribarre gozo bat zabaldu zitzaion ahoan. Behin merkatuan, beharrezko gauzak erosi eta mozorrotzekoak hartu zituen. Pentsatuta zeukan haren ile marroiak pintura zuriz margotzea. Pintura garestia zen eta bere gogoko ezti-ontziarekin trukatu behar izan zuen.



—Panda bat banintz, pintura zuri gutxiago gastatuko nuke, ile beltzak bakarrik pintatu beharko baintuzke ardia bihurtzeko —burura etorri zitzaion hartzatxoari berehalako batean—. Bueno, agian ez du mozorrotu beharrik ere.

Arratsalde horretan bertan hasi zen mozorrotzen eta hortik bi egunetara ardi zuri eta polit baten itxura zuen hartzatxoak.

—Bihar joango naiz ardien bila, seguru nago lagunak egingo garela —pentsatu zuen hartzak, ispilu baten aurrean zegoela ea nola geratu zitzaion ikusten.

Biharamunean, hartza normalean baino goizago jaiki zen eta dena prest zuenean etxetik irten zen mozorrotuta. Egun horietan, mozorrotzeaz gain, ardiek nola jokutzen zuten ere praktikatu zuen. Hartzatxoa benetan lagun berriak egiteko ilusioz eta gogoarekin zegoen, bere bihotzaren barren-barrenetik.

Minutu batzuk geroago, hartza, orain ardi faltsua, belardira ailegatu zen. Hor, ustekabeko ezer ez, artaldea ikusi zuen, betiko poztasuna eta askatasuna haien artean.

—Orain izan behar da momentua hurbiltzeko —pentsatu zuen hartzatxoak, eta pausu txikiak emanaz gerturatu zen artaldea zegoen aldera.

Hartzak, urduriegi, ezin izan zuen hitz egin. Beraz, belarra jaten hasi zen.

Baina handik gutxira, ardi bat bere presentziaz ohartu eta hurreratu zitzaion.

—Kaixo, etorri berria zara? Ez zaitugu ikusi lehen —galdetu zion arditxoak irribarrez.

—Bai, oraintxe iritsi naiz. —erantzun zuen hartzatxoak, pixka bat harrituta.

—Gurekin jolastu nahi duzu? —galdetu zion, berriz, arditxoak—. Zerua ilundu baino lehen hemen egongo gara.

—Ahal dut? —hartzak, begiak ilusioz beteta—. Askok gustatuko litzaidake.

Hala, hartzak egun ezin hobia pasatu zuen bere lagunekin, berriak eta lehenengoak. Zerua ilundu zuenean, berriro bakardadeak inguratutik sentitu zen, baina berehala animatu zen hurrengo eguna ere zoragarria izango litzatekeela pentsatuz.

Gauean, hartza ezin izan zen lokartu, dena amets baten modukoa izan zen harentzat. Orduan, leihoaren ondoan ipini eta zeru ilunari begira geratu zen; ilargia eta izarrak zeuden. Burura etorri zitzaion zerua ikusi zuen lehen aldian ilargia bakarrik zegoela, eta ilargia bera bezain tristea eta bakartia zela pentsatzen zuen. Orain, lehen aldiz, izarrak ikusi zituen.

—Begira! Ilargiak ere lagun berriak egin ditu! —hasperen egin zuen hartzak atseginez. —Nireak bezain dirdiratsuak dira!



Hurrengo egunak hartzatxoak ere lagunekin igaro zituen, alaitasunez. Hala ere, zorte txarraren eguna heldu zen. Hasieran dena ondo zihoan, artalde eta hartza belardian, baina denbora pasa ahala zerua gero eta ilunago zegoen. Hori gutxi balitz, euria egiten hasi zen, eta etxera itzultzeko beste aukerarik ez zuten izan.

—Nire mozorroa! —oihukatu zuen hartzak buruaren barruan, euriak bere mozorroa zeraman.

Beranduegi zen; ardiek, euria zela eta, hartzaren egiazko itxura ikusita ihes egin zuten ahal zuten azkarren.

Gau hartan, berriz, hartzak ezin izan zuen lo hartu. Leihoaren ondoan jarrita eta zeru benetan ilunari begiratu zion. Ilargia bakarrik zegoen eta ez zuen inondik ere lehen ikusi zuen distirarik. Berak bezala.

—Ilargia, zure lagunak ere joan dira? —galdetu zuen hartzak, xuxurlaka.

—Sarritan galtzen dute burua eta ez dakite zer egin eta nora doazen —erantzun zuen ilargiak, hartzari harridura eraginez—. Denbora behar dute.

“Nire lagun maiteak joan dira, nire itxura ikusi eta gero” izan zen hartzatxoak izan zuen azken pentsamendua lotan erori baino lehen. Berriro ere, dena amets baten antzekoa iruditu zitzaion; izan ere, nahi zuen hori guztia amets bat izatea, benetakoa ez izatea.

Hurrengo egunean, hartzak ez zuen ohetik altxatzeko gogorik, ezta esnatzeko nahirik ere. Halere, ezinezkoa izan zen, norbait atea jotzen zegoen.

—Nor izango da? —pentsatu zuen hartzak, zalantzan atea zabaldu ala ez.

Atea ireki eta animalia asko ikusi zituen: untxia, tigrea, elefantea, otsoa, azeria... Zoo bat bezalakoa zen bere zuhaitz-etxearen aurrean zegoena.

—Barkatu —esan zuten animaliek—. Ez genuke ezer esan gabe alde egin. Isiltasuna egin zen.

—Gu ere mozorrotzen gara —norbaiten ahotsa entzun zen segundo batzuen buruan.


—Eta mozorroak eramaten ditugu —esan zuen untxiak ardiaren mozorroa erakutsiz.

Bisita ezusteko horren ostean, animaliak berriro ezagutu zuten elkar. Oraingoan, bakoitzak zuen benetako itxurarekin. Inork ez zuen ezer ezkutatu, ziren bezalakoa izatea lortu zuten; eta ulertu zuten edozein izanda ere, eramandako itxura baino

barruan zutena beti izango zela baliotsuagoa eta garrantzitsuagoa. Eta hau hala bazan, ez bazan, sar dadila kalabazan, eta irten dadila Bilboko plazan.



ZERBAIT ESAN NAHIKO NUKE



Garazi Iraeta Postigo
IES Ibaizabal BHI

7 egun lehenago. Danel.

Dena astuna zirudien, logelak inguru astun bat zeukan, mantak gorputzera itsatsita nituen. Aita oraindik lotan zegoen, goizeko zazpiak zirelako. Amak, berriz, jada gosaria prestatuta zuen eta nire zain zegoen. Ausardia handiz, ohetik altxatu eta ikastetxera joan nintzen.

Ikasgelan nire burua nabarmen ez egiten saiatsu nintzen, jende askorekin egotea ez nuelako gustuko. Lehenengo bi orduak normalean lasaiak ziren, nire klase-kideak oraindik erdi lo egoten zirelako. Hala ere, goiza aurrera joan ahala guztiz esnatzen ziren. Gehienetan bezala, hasi nintzen koadernoaren izkinan marrazki txiki batzuk egiten, irakaslearen azalpena guztiz galduz. Noizean behin atzeko ikaskideen zurrumurruak entzuten nituen. Betikoa: barre baxu batzuk, irain bat edo bi... Hasieran ez nion garrantzirik ematen, Aldoren eta Aimarren arteko zerbait zela uste nuelako, baina handik egun batzuetara ulertu nuen ni nintzela haien barrearen arrazoia. Bazekiten ohartu nintzela, baina barnean zerbait hautsi zitzaidan eta ez nintzen ausartzen ezer esatera. Beldurra edo lotsa, ez nekien zer zen. Ikusi zutenean nik ez nuela ezer esaten, gero eta gauza gehiago egiten zizkidaten. Beraiei ezer ez esaten saiatzen nintzen, ez zuen merezi, baina noizean behin buelta ematen nuen haiek begiratzeko, aurpegi hotz batekin, baina besterik ez.

Txirrinak jo zuen eta denak hasi ziren patiora jaisteko biltzen. Iaz Gorka eta Aritzekin joaten nintzen, eta noizean behin Irunerekin, baina nire erruz nigandik urrundu dira; izan ere, udan ez genuen hitz egin eta horrek eragin izan zuela dirudi. Aurten, Aldo eta Aimarren barreekin, besteen begiradekin eta komentario batzuekin jaisten nintzen.

—Danel beti bakarrik jaisten da, inork ez du nahi berarekin egon ala? —esan zuen mutiko batek.

Jendearen barre gehiago entzuten nituen pasa lekuetan, Aldok eta Aimarrek bultzaka tratatzen nindutela ikustean, pilota bat banintz bezala. Eskuetan nituen gauzak ez erortzen saiatzen nintzen, baina oreka mantentzea zaila zen eta ez nuen lortzen bultzada batetik zutitzea beste bat ematen zidatenerako. Ahula sentitzen nintzen, ez nekien nolako jarrera adierazi. Bakarrik ibiltzen jarraitzen nuen, ahalik eta tenteen.

—Begira, benetako pilota dirudi! —adierazi zuen Aldok, barrezka.

—Aizu, patioan ostiko bat eman beharko genizuke? —erantzun zuen Aimarrek, txantxei jarraituz.

5 egun lehenago. Danel.

Hirugarren ordua zen, klasea hasi berri, eta irakasleak lasai itxaron zuen denek liburuak atera zituzten arte. Hitz egiteko bidea zuela ikustean, ilusio handiz esan zigun hurrengo lana: binaka jarri eta emandako gaiari buruzko aurkezpen bat egin. Taldeak gure kabuz egin ahal genituenez, jendea oihuka hasi zen eta haien lagunekin elkartu ziren lana egiteko. Buruari ematen, nire koadernoaren zirriborroak gainetik begiratu nituen, eta gero Gorkaren mahaira, lana nirekin egitea gustatuko litzaiokeelakoan. Ez zuen luze iraun nire ilusioak: mahaiaren gainean eserita zegoen, ikasturte honetan etorri berria zen neskarekin, gainera nahiko ondo integratu zena. Jada mutiko askok begitxoekin begiratzen zioten, Gorka barne.

—Beno, bikoteak antolatuta dituzue? —galdetu zuen irakasleak, eta nire pentsamenduetatik atera ninduen.

Denek baietz esan zuten, beraien bikotekidearekin. Nire alboko eserlekura begiratu nuen, hutsik. Ezer esan gabe nire koadernoaren zirriborratu nuen berriro.

—Irakasle, Danelek ez du bikoterik! —esan zuen Aldok barre egiten.

Gela guztia barrezka hasi zen, eta irakaslea asko harritu zen. Orduan, nitaz ahaztu zela iruditu zitzaidan, baina ez nuen arraroa ikusi. Aldok bere gorputza aurrerantz bota zuen, niregana hurbiltzeko.

—Ez zara konturatzen? Inork ez du nahi zurekin lan egin, ez bazina hain arraroa... —Une batez isildu zen eta barre txiki bat entzun nuen—. Baina ez larritu, irakasleak norbaitekin elkartuko zaitu penagatik.

Ingurura begiratu nuen, eta konturatu nintzen neska berriak ez zuela barrerik egiten, itxura serioa zuen eta noizean behin kolpe txiki bat ematen zion Gorkari, isiltzeko esango balio bezala. Ez nengoen ohituta horrelako erreakzioa jasotzera. Sentimendu hauek, tripak nahasten zizkidatenek, gehienak sentsazio berriak zirenak... aurkitu nituenetik, ez nuen sentitu hain keinu sinple baina aldi berean hain politik.

2 egun lehenago. Danel.

Gaur zen lanaren aurkezpena. Azkenean irakasleak beste taldean jarri ninduen eta hiruko talde bat osatu genuen. Nire lan zatia patxadaz egin nuen, baina prestatzen hasi nintzenean besteen aurrean aurkezteko, nerbioak sartu zitzaizkidan etxean egon arren. Nire barnean dena mugitu zela sentitu nuen. Eskuak izerditan nituen eta bizkarretik hotza sartzen zitzaidala sentitu nuen. Beldur handia ematen zidan besteen aurrean zerbait esateak, baina ez nekien pertsona erreserbatua nintzelako edo Aldoren eta Aimarren txantxei beldurra nielako ote zen. Baina ziur nintzen zerbaitek ikaratzen ninduela.

Azken ordua iritsi zen, aurkezteko unea. Irakaslea alai-alai sartu zen atetik, eta ziztu bizian denoi esertzeko agindu zigun.

—Lehenengo taldea aurkezteko Danel, Leire eta Nerearena izango da. Beraz, nahi duzuenen! —esan zuen, gure lana pantailan jartzen zuen bitartean.

—Neska gizajoak! —oihu egin zuen Aldok, pena faltsu batekin.

—Haien tokian egonda, lana bakarrik egitea nahiko nuke... —jarraitu zuen Aimarrek.

Klaseko batzuek barre egin zuten. Irakaslea gela osoari begira zegoen, eta horrek barrea moztu zien batzuei.

—Bikote, horiek ez dira moduak, ziur lan handia egin dutela —esan zien irakasleak.

Klasea pixkanaka isiltzen joan zen eta nire taldeko bi neskek irribarre faltsu batekin begiratu zidaten. Iruditu zitzaidan lasaitzen saiatzeko zela. Azkenik isildu zirenean aurkezpena hasi genuen. Ni nintzen azkenengo zatia esaten zuena. Zenbat eta denbora gehiago pasa, orduan eta urduriago jartzen nintzen. Sentitzen nuen eskuak izerditan hasten zitzaizkidala, etxean baino gehiago. Hotza bizkarrean sentitu nuenean dardarka hasi nintzen. Nire txanda iritsi zen eta zuri-zuri geratu nintzen, buruz ikasita nuena ahaztuz. Pentsatu nuen ideia ona izango zela arbeletik irakurtzea, baina hitzak ez zitzaizkidan ateratzen, jada nerbioek tripako mina eragiten hasi zidaten eta totelka hasten nintzen zerbait irakurtzen saiatzen nintzenean.

—Danel, jada ez zara gogoratzen ezta nola hitz egin? —galdetu zuen Aldok, txantxetan.

—Ikusten duzu! Ez daki ezer —jarraitu zuen Aimarrek.

Klase osoa barrez hasi zen, eta denen aurrean nengoen, inoiz baino ageriago sentitzen nintzen. Nerbioek hartu ninduten eta komunera joan nintzen begi tristeekin.

Egunean. Danel.

Patio orduan Aldok eta Aimarrek ez zidaten ezer egin. Arraro iruditu zitzaidan, baina aldi berean lasai nengoen. Hala ere, jendeak nitaz egiten zuen barre. Bakarrik eserita nengoen, hamaiketakoak jaten.

—Kaixo, zertan zabilta? —entzun nuen bat-batean.

Salto txiki bat eman nuen. Ikaratu nintzen, zeren eta ez nuen espero. Neska berria zen. Nire klase berberean egon arren, oraindik ez nekien bere izena. Bere begiak arretaz aztertu nituen, edozein gauza txar espero nuen eta.

—Ba... ez dugu inoiz hitz egin, ezta? Amaiur naiz. Beti bakarrik ikusten zaitut —hasi zen esaten, lasaitasunez—. Uste dut jakinarazi egin behar dizudala Aldok bideo bat eskegi duela, zutaz burlatzen.

—Zer?

—Bai, bideoa pasatu didate, nahi baduzu erakutsiko dizut —esan zuen mugikorra ateratzen zuen bitartean.

—Noizkoa da?

—Atzokoa.

Ez nion gehiago galdetu, begirada desbideratu eta puntu finko bati begira geratu nintzen. Bularrean korapiloa sortzen ari zitzaidala sentitu nuen, bihotza bizkortu zitzaidan eta gorroto korronte batek zeharkatu zidan gorputz osoa. Sentsazioak barrutik kontsumitzen ninduen. Oihu egin nahi nuen, desagertu eta negar egin. Aldoren eta Aimarren barre guztiak gogoratu nituen, kolpe eta irain bakoitza. Momentuan, eskuak itxi nituen amorrak gorputza zeharkatzen zidan bitartean. Aldori aurre egin nahi nion, baina, aldi berean, zalantzan nengoen. Hain beharrezkoa al zen? Hala ere, hartaz pentsatzeak mina ematen duen zauria bezalakoa zen. Besterik esan gabe Aldoren bila joan nintzen.

Aurkitu nuenean muturreko bat eman nion. Nire esku lehorrak, bere aurpegiarekin topo egin zuen, patio osoan zehar entzun zen kolpe lehorra. Denak erreakzionatu gabe geratu ziren.

—Oso ausarta zarela uste al duzu? —galdetu zidan serio— galtzaile bat baino ez zara.

—Zertan zabilta? Besteok baino hobea sentitzen zara norbait zirikatzegatik? Aldo niregana hurbildu zen, bere amorrua gainditu zuen. Berehala, institutuko beste neska-mutilek korru bat egin zuten gure inguruan eta irakasleak berehala iritsi ziren gu banatzera.

Astebete geroago. Aldo.

Nire jantziaren azken gauzak prestatzen ari nintzen etxetik irteteko, hitzaldia errepasatzen ari nintzen bitartean, denen aurrean esateko. Oso urduri nengoen. Inoiz ez nuen hileta batean hitz egin, are gutxiago bere heriotzaren errudun sentitzen nintzenean. Nire amak hiletara eraman ninduen. Bide isila izan zen.

Tokira iritsi nintzenean, bere ama banku batean eserita ikusi nuen, negarrez, bere aita goitik behera aurpegi txarrarekin begiratzen zidan bitartean. Oso urduri atera nintzen, eskuak dardarka nituen eta lurrak irenstea gura nuen. Omenaldiak egin ziren, eta nahi izan zuenak prest zeukan hitzaldia esan zuen. Nire txanda iritsi zenean, astiro altxatu eta denen aurrean jarri nintzen, beldurtuta.

—Zerbait esan nahiko nuke —hasi nintzen totelka—. Ez dakit berari buruz zer esan, baina Danelek pentsatzen zuen inork ez zuela bere burua ulertzen. Orain ezin dut gezurrik esan. Ni kapaza izan naiz ulertzeko, orain ulertu dut, agian oso berandu da —pausa txiki bat egin nuen—. Horregatik hemen nago. Ezin dut ezer

aldatu. Barre egiten nuen, ikusten nuen nola erortzen zen lurrera, eta askotan nik bultzatzen nuen. Danelen bizitza nire eskuekin sakabanatu dudala sentitzen dut —airea hartu nuen—. Ezin dut bere bizitza berreskuratu. Ezin diot esan ez zela ikusezina ez zela, nik askotan ikusten nuen baina nire axolagabekeriak hau erakarri du. Ez nago konforme, baina honakoa ulertu dut: Ez da bakarrik jendea ikustea, ondo tratatzea eta ulertzea baizik. Eta ahal banu, barkamena eskatu nahiko nieke, Daneli eta bere familiari.

OLIBONDO BAT GUTXIAGO ZAGREBEN

Ibai Gea Cámara
Artxandape Ikastola HLBHIP

**“Zorigaitzak etortzen direnean,
ez dira bakarrik etortzen, gudarosteetan baizik.”
William Shakespeare**

Nire egunerokoaren hasieran esaldi hau idatzi dut, gerrak ia guztia ebatsi badit ere, oraindik baditudala orrialde hauek gogorarazten didalako. Azken urteotan izan ditudan bizipen mikatzei esker nire berbak kontrola ditzakedan gauza bakarra direla jabetu naiz. Hemen, behintzat, mintzamenen artean, lehergailuen hotsek ezin diete berbei esanahia kendu. Hemen, behintzat, zerbait izaten jarrai dezaket.

Gaur 82. eguna da bonbardaketak hasi zirenetik. Abioien soinuek ez naute lehen bezainbeste beldurtzen, aitzitik, isiltasuna da orain benetan trabatzen nauena. Eztandarik ez dagoenean, badakit elite politiko horren parte direnek makurragoa den plan bat prestatzen ari direla metro karratu gehien duen lurraldea izateko. Baina bitartean, gainerakook benetako konbatea bizitzen jarraitzen dugu, non isiltasuna den orain oinaze handienaren preludioa. Erortzen den pisua, isildura, batez ere edozein durundi baino astunagoa da.

82. eguna: dena eraman dute

Gaur goizean nire etxetik bi kaletara dagoen babes-etxera irten naiz. Urrunetik ikus nezakeen aterpearen atean hasten zen ilara amaigabea zela, baina ez nau harritu, ohituta nago orduak eta orduak itxaroten janari eskukada bat lortzeko. Gutxienez arroz pakete bat eta ur botila pare bat eskuratu ditut “boluntario” hitza erraz irakur zitekeen txaleko batzuekin laguntzeko hain urrutitik etorri ziren norbanakoei esker. Bueltan nindoala, eskola bat zenaren pareten artean igaro nintzen eta hotzikara egin zen nire gorputzaren jabe. Eraikina ezagutezina bilakatu zen, artean eusten zioten hondakin eta horma batzuk besterik ez zirauten, nahiz eta erortzeko zorian egon. Idazmahaiak lurrian sakabanatuta zeuden, norbaitek errotik erauzi izan balitu bezala. Hormak, garai batean haurren barre eta ahotsen lekuko izan zirenak, presaka idatzitako mezuez estalita zeuden orain, eta izenak, datak edota agur presatuak barne irakur nitzakeen.

“Amatxo, barkatu. Zaindu Mila. Maite zaituztet.” —zioen bat irakurtzeko geratu nintzen. Hitzek hormaren gainazala kiskaltzen zutela zirudien. Ezabatu nahi nituen, samin hori ukitze hutsarekin borratuko banu bezala, baina ezin nuen. Ez zen nire erabakia.

Etxean, Khaled aldamenekoarekin partekatu nuen arroza. Gerrako lehen hilabeteen emaztea galdu zuen adineko gizona, alegia. Andrari buruz hitz egiten duen bakoitzean, bere aurpegia harkaitz bat bezala gogortzen da, baina bere begiek... bere begiek beste istorio bat kontatzen dute. Ez dela gosea dio, baina bere ninikek traizio egiten diote hezur eta larru egindako gorputzari. Gertatzen ari denari buruz gehiago idazteko hitza ematen badiot soilik onartuko duela janaria dio behin eta berriz. “Hori da geratzen zaigun gauza bakarra, Salim”, esaten dit. *“Norbaitek jasota utzi behar du. Plama hauek guk baino gehiago iraun behar dute.”* Egia esanda, ez dakit egingo duten, baina hala agindu nion.

83. eguna: jada ez dena

Gaur liburu bat aurkitu dut hondakinen artean. Behinolako antzerti obra bat zen, orriak ia irakurtezinak zituena hezetasunagatik. Baina hitz lausoen artean pasarte bat ezaguna izan zitzaidan:

“Zenbat hondatu diren alferrikako gudengatik, zenbat bizitza hautsi diren gutxi batzuen gutziagatik!”

Ezin izan nuen nire Ahmed anaiarengan pentsatzea ekidin, faltan dut familia-bazkarietan alboan izatea. Bera izan zen frontera batu zen lehenetarikoa, aldea markatu zezakeela sinetsita. Baina gerrak ez dira filmetan bezalakoak, non heroiek bizirik irauten duten eta dominez beteta itzultzen diren etxera. Gerrak ez dira adorez irabazten, bizirautez baizik. Hilabeteak dira haren berririk ez dugula, eta, funtsean, denok dakigu horrek zer esan nahi duen.

Batzuetan amets egiten dut, Ahmedek uniformea jantzita daramala, irribarrez, dena ondo balego bezala. Amets horietan, hitz egiten saiatzen naiz, baina egiten dudanean, aienatu egiten da, eta bularrean korapilo bat dudala esnatzen naiz.

85. eguna: olea oleaster (olibondoa)

Gaur Amina ezagutu dut. Zazpi urteko ile horaileko neskato atsegina da, nire eraikinetik gertu dagoen teilapean bizi dena. Bakarrik zegoen eserita, kartoi puska batean marrazten. Zer egiten ari zen ikustera hurreratu naiz, eta arbola bat marrazten ari zela ikusi dut.

—*Zer zuhaitz mota da?* —galdetu diot.

—*Olibondoa* —erantzun du begirada altxatu gabe.

Baten bat ikusi ote duen galdetu diot, baina ezetz egin du buruaz. Azaldu dit amak kontatu ziola olibondoak indartsuak direla eta ehunka urtez bizi daitezkeela. “*Gu bezalakoak dira, ezta? Bizirik diraugu.*” —esan dit irribarre gozo batekin. Ez dut jakin zer erantzun. Ezin izan diot hitzeman bizirik aterako garenik. Ez nuen gezurrik esan nahi. Irribarre baino ez dut egin, eta xuxurlaka agindu diot, hau guztia amaitzen denean, benetako olibondo bat ikustera eramango dudala.

86. eguna: gogoratzea ahaztu dut

Babeslekua bonbardatu dute gaur goizean. Inork ez daki zenbat atera diren bizirik. Amina haien artean zegoen. Ezin izan dut ezer egin. Bonba-autoen sirenek ezkutatzera behartu gaituzte bertan geunden guztiok, eta irteterakoan, hondakinak baino ez ziren geratzen.

Hau idazten ari naiz eskuak dardarka, hondakinen artean barreiatu dauden Aminaren marrazkien irudia ezabatu ezinik. Inoiz ikusi ez duen olibondoa dut gogoan, eta beste inork bere izena gogoratuko ote duen galdetzen diot neure buruari.

Khaledek dio ez dudala amore eman behar, idaztea dela geratzen zaigun gauza bakarra. Baina sentitzen dut hitz bakoitza harri bat dela, eta ez dakit zenbat denboran jasan dezakedan. Idatzitako esaldi bakoitzak pixka bat gehiago urruntzen nau ezagutu nuen mundutik, non nire kezka bakarra etxerako lanak egitea eta Tximeleta parkean ezkutaketan lagunekin jolastea zen. Une honetan, hitz bakoitza promesa hautsi bat bihurtzen da nahitaez.

87. eguna: esateko dagoena

Gaur onartu nahi ez dudan ondorio batera iritsi naiz: egunkari hau ez da niretzat. Ez dut idazten neure burua husteko, ezta gertatzen ari dena ulertzeko ere. Idazten dut badakidalako ez naizela bizirik aterako.

Nire gorputza ahulago dago egunetik egunera. Duela aste batzuk hasi zen eztula jasanezin bihurtu da, eta ez dago artatzeko gai den medikurik. Batzuetan uste dut errazagoa izango litzatekeela borrokatzeari uztea, baina gero Aminaren hitzak gogoratzen ditut: “*Bizirik diraugu.*”

Inork orri hauek aurkitzen baditu, hauxe jakin dezan nahi dut:

Ez gara zenbakiak. Izenak gara, aurpegiak, istorioak. Maite, barre egin eta amets egiten dugun pertsonak gara, baita izugarrikeriaren erdian ere.

Nire izena Salim da. Nire anaiak Ahmed zuen izena. Olibondoak marrazten zituen neskatoak Amina zuen izena. Eta zorigaitzak batailoietan etorri baziren ere, sinetsi nahi dut, azkenean, munduak jakingo duela hemen izan ginela.

“Zorigaitzak etortzen direnean, ez dira bakarrik etortzen...” Baina geratzeko ere ez. Edo hala espero dut.



BABESTUTA

Araitz Busturia Barrena
Artxandape Ikastola HLBHIP

Izaro beti izan da neska alaia, begiak distiratsu eta irudimena mugagabea dituen. Haurtzaroan, bere herriko kaleetan korrika ibiltzen zen lagun taldearekin, Leire, Saioa eta Jonekin. Laukote horrek dena elkarrekin egiten zuen: basoan abenturak bilatu, errekan bainatu edo izarrei begiratu. Lagun talde hori Izarorentzat bigarren familia bezalakoa zen.

Baina egun batean, Izaroren mundua ilundu egin zen. Zortzi urte zituenean, bere gurasoak haserretzen hasi ziren, eta eztabaida oihuak gero eta ozenagoak ziren. Lehen, gurasoen arteko txiste eta barreak ziren nagusi etxean, baina orain hitz mingarriak eta objektu zaplaztekoak entzuten dira. Izaro ez zen gauza horiek ulertzeko gai; hala ere, mina eta beldurra zeukan.

Eztabaidak hasten zirenean, Izaro bere gelara korrika joaten zen. Bere gelan izkina batean esertzen zen eta belarriak estaltzen zituen, ahots horiek entzun nahi ez zituelako. Bere gelan, bakarrik, negar egiten zuen askotan.

Denborarekin, gurasoen oihu horiek etxeko egunerokotasunaren parte bihurtu ziren, eta Izarok bere burua babesteko isolamendua aukeratu zuen. Eskolan ere aldaketak nabaritzen hasi ziren. Leirek eta Saioak galdetzen zioten zergatik ez zen gehiago eurekin ateratzen. Jonekin barreak ateratzen saiatzen zen, baina Izarok bere lagunak urruntzen zituen.

—Ez daukat gogorik —erantzuten zien beti. Eta pixkanaka euren arteko lotura urrutzen joan zen.

Urteak pasatu ziren, eta Izarok bakardadean babesa aurkitu zuen. Gurasoen eztabaidek jarraitu zuten, baina Izaro ohitu zen, edo hori uste zuen. Baina trauma horrek bere barruan hazten jarraitu zuen, eta nerabezaroan Izaro ez zen inorekin fidatzen. Gau batean, beste eztabaida gogor bat entzun ondoren, bere logelan malko artean zegoela bere buruari esan zion: “Hau ezin da izan horrela. Ezin dut aguantatu gehiago.”

Hurrengo asteetan, Izaro lagunekin egoten hasi zen berriro, baina ez zen erraza. Leireri denbora asko eman behar izan zion berriro guztia kontatzeko. Azkenean berak esan zuen:

—Ez naiz gehiago isilik egongo. Beldurtuta bizi izan naiz denbora luzez.

—Ez zenuen bakarrik bizi behar. Gu hemen gaude zuretzat. Beti izan gara —erantzun zion Leirek.

Hitz horiek Izarorentzat salbazio bat izan ziren. Lagun taldearekin lehen bezala barre egiten hasi zen. Saioa eta Jonekin kalera irten zen berriro, eta hasi ziren jolasten jolas zaharrekin. Baina, barruan oraindik mina ez zen desagertzen. Etxean oraindik giro iluna zen, eta gurasoen arteko haserrealdiak ez ziren guztiz amaitu.

Gau batean, eztabaida gogor baten ondoren, Izaro logelan eserita zegoen eta bere barnean nahigabe sentitu zuen gauza bat. Ez zuen gehiago horrela jarraitu nahi. Buruan ideia bat bueltaka hasi zitzaion. “Gurasoei hitz egin behar diet. Ezin dut gehiago isilik egon.”

Hurrengo egunean, sukaldean eseri zen bere gurasoekin. Ama kafea hartzen ari zen eta aita egunkaria irakurtzen. Izarok arnasa hartu zuen eta esan zuen:

—Ez dut gehiagorik aguantatuko. Zuen eztabaidek min handia egiten didate. Ezin naiz horrela bizi.

Amak kafea utzi eta begiratu zion:

—Izaro, zergatik ez diguzu lehen esan?

—Ez nekien nola. Beti beldur nintzen.

Une horretan, aitzak egunkaria alde batera utzi zuen eta hurbildu zen. Gurasoek ez zuten berehalakoan konpondu euren arazoa, baina momentu horretan ulertu zuten euren alabak gordetzen zuen mina. Elkarriketa horrek dena ez zuen aldatu, baina aldaketaren lehen urratsa izan zen.

Izarok laguntza aurkitu zuen lagunaren artean, baina bere barne sendaketa prozesua motela zen. Egun batean, eskolan Leirek esan zion:

—Aurrera egiten ari zara. Ez zara konturatzen, baina barrutik indartzen ari zara egunero.

Hitz horiek Izarorentzat garrantzitsuak izan ziren. Bere barruko zauriak indartzen ari zirela sentitu zuen. Hori dela eta, lagunekin emandako denborak bere barruko argia pizten jarraitu zuen. Eskolako irakasleek ere aldaketa nabaritu zuten: Izaro lasaia eta irekiagoa bihurtzen ari zen.

Hala ere, etxeko egoera ez zen beti erraza. Batzuetan eztabaidak berriro sortzen ziren, eta Izaro oraindik logelan babesten zen. Baina orain ez zegoen

bakarrik. Leireri mezu bat bidaltzen zion eta beti erantzuna jasotzen zuen: “Ez zaude bakarrik, Izaro. Oso ausarta zara.”

Gurasoen artean ere, gauzak aldatzen hasi ziren. Egia esan, aldaketa horiek txikiak ziren, baina egon ziren. Aitak egun batean esan zion:

—Ez dakit zergatik jarri ginen hain haserre. Zure hitzek zerbait piztu digute, Izaro. Eskerrik asko.

Izaro negarrez hasi zen, baina oraingoan negar horiek pozik bota zituen. Ulertu zuen ez dela iragana ahazten edo ezabatzen, horrekin bizitza ikasten dela, baizik.

Urteak pasatu ziren, eta Izarok bere buruarekin bakea aurkitu zuen. Leirek, Saioak eta Jonek bere bizitzaren parte izaten jarraitu zuten, eta euren maitasunak indartu zuen Izaroren bidea. Orain, Izaroren begietan distira berri bat dago; muintetik ikasitakoa, indarra eta itxaropena islatzen dituen distira.



BAT, BI ETA HIRRU!

Mara Orbe Alkalde
Kirikiño Ikastola HLBHIP

Ikastolako albisteak jarri ohi dituzten kortxoan orri berri bat agertu zenean guztiok gerturatu ginen, zer iragartzen ote zuen ikusteko. Ez zen sarri gertatzen, normalean betiko paperak baino ez zeuden han, eta albiste berri honek, ikastola osoaren arreta erakarri zuen. “Kantu lehiaketa” zioen orrian, letra larriz idatzita, eta beherago, letra txikiagoan idatzita, argibideak eta sariak ageri ziren. Geldi geratu nintzen, orriari begira, zer egin erabaki ezinik. Abestean zen erremerre hitz egiten ez nuen momentu bakarra. Ez dakit zergatik edo nola gertatzen zen, baina abesten nuenean pentsatzeari uzten nion, imajinazioaren munduan barneratzen nintzen, eta aske sentitzen nintzen. Gainera, ez nuen erremerre abesten, eta hori albiste itzela zen.

Arazo bakarra zegoen, eta ingurukoak ziren.

—Ei, Amaiur! —deitu ninduen Ekik, pasilloaren beste muturretik.

Albisteari azken begiratu bat eginez hurbildu nintzaion.

—Ikusi duzu albistea? —galdetu zidan— itzela da, nik probatu egingo dut.

Ez zidan galdetu ere egin ea parte hartuko nuen. Uste dut, erremerre izanda, ez zitzaiola burutik ere pasa,



erreak hainbeste errepasatuz abesteko gai izango nintzenik. Nik ez nuen ordura arte dutxatik kanpo inoiz abestu, eta, nahiz eta alde batetik ilusio egiten zidan munduari gai nintzela erakustek, lotsak eta gainerakoek egingo zizkidaten burlek, nire alde positiboa estaltzen zuten.

—Pena da zuk ezin duzula abestu, bestela, batera abes genezake —esan zuen halako batean Ekik.

Ez dut uste asmo txarrez esan zuenik, baina bere hitzek eztenek bezala ziztatu zuten nire gorputza, bihotzeraino.

—*Tirra, ni erre gai naiz abesteko* —marmar egin nuen hortz artean, baina ez berak entzuteko bezain altu. Inoiz ez nuen altuegi esaten pentsatzen nuena, besteek zer pentsatuko zuten beldur bainintzen. Eta barre egiten bazuten? Eta haserretzen baziren? Nahiago izaten nuen dena nire barnean gorde.

Bidearen gainerakoan ez nuen ahoa zabaldu, Ekik, bitartean, gehien gustatzen zitzaizkion abestien zerrenda kontatu zidan. Nire lagun handia zen, betidanik ezagutu izan ginen, eta inoiz ez ninduen alde batera utzi nire ahoskatzeko moduagatik, baina, momentu hartan, amorratuta nengoen harekin, eta etxera noiz helduko zain egon nintzen bide osoan, harengandik urruntzeko.

—Agur, Amaiur!

—Agurr Eki!

Etxera heldu nintzenerako ez neukan indarrik bazkaria jateko ere. Beraz ohean etzan nintzen, albistean irakurri nuenaz gogoeta egiten. Eta parte hartuko banu? Ideia hain zen tentagarria... Baina ezin nuen. Klase-kideek barre egingo zidaten ziurrenik, trabatu egingo nintzen eta lotsagarri geratu mundu guztiaren aurrean. Ez, ideia ahaztu beharra nuen, eta ahalik eta arinen hobeto.

Baina oraindik bazegoen zelula txikitxo bat nire buruan, zelula positibo bat, zelula baikorra, neure buruan sinesten zuena. Beharbada norbaitekin hitz egin behar nuen, hausnartu eta dena azaldu.

Hurrengo egunean Nahiarengana hurbildu nintzen, zer egin ez nekien guztietan egiten nuen bezala.

—Zer duzu, Amaiur? —galdetu zidan alai—. Lagun zaitzaket?

Albistearena kontatu nion, nire abesteko gogoarena, nire kezkena... Dena kontatu nion, sekreturik gabe.

Tarte batez isilik geratu zen, kontatu berri niona hausnartzen.

—*Parrte harritu beharrko* nukeela uste duzu? —galdetu nion.

Sorbaldei eragin zien, eta munduko gauzarik normalena balitz bezala esan zuen:

—Ezin zara betiko itzaletan ezkutatuta egon.

Ez nuen oso ongi ulertu esan nahi zuena, baina, irribarre batek ihes egin zidan.

—*Eskerrrik asko, Nahia*— xuxurlatu nuen.

Baina oraindik ere, nire buruaren alde ezkorra baikorraren aurka borrokan zebilen. “Amaiur, ezin duzu egin” esan zuen alde ezkorrak, irmo. “Baina Nahiak arrazoi du, egin behar dut.”

“Amaiur, gauza asko atera daitezke txarto, zure onerako da. Trabatut egingo zara, ahotsa ez zaizu eztarritik irtengo, denek barre egingo dizute eta ohi baino burla gehiago egingo dizute. Mesedez, ez ezazu izena eman”.

Begiak itxi nituen, eta eszenatokian nengoela imajinatu, dena txarto ateraz. Gelakideen isekak entzun nitzakeen urrunean, eta malko batek masailen beheara egin zidan irrist. Ni inoiz ez nintzen hartarako gai izango, ardi beltz bat izango nintzen betiko, ardi zuriz beteriko gizarte batean.

Egun hartako klaseetan ez nuen arretarik jarri. Nire barnean borrokan nenbilen, eta ez nuen kanpotik zetorren ahots bat bera ere entzun.

Hurrengo egunean, albistearen orriaren alboan kutxatxo bat jarri zutela ikusi nuen, izena idatzi eta bakoitzak papertxo bat barruan sartzeko.

Zertan nenbilen ohartu aurretik, boligrafo bat eta orri zati bat hartu eta nire izena idatzi nuen. Orri zatia begiratu nuen. Nire etorkizuna papertxo haren menpe zegoen, eta gainera, nire barneko alde ezkorak arrazoi zuen. Arriskutsuegia zen. Gauza gehiegi irten zitezkeen txarto. Hala ere, papertxoari azken begiratu bat eginez, kutxan sartu nuen. “Kitto, egina dago” pentsatu nuen, alde batetik arinduta eta bestetik kezkatuta, “ez dago atzera bueltarik”.

—Amaiur! —entzun nuen atzetik— Zertan ari zara? Eki zen.

—Eki... —nire eskuei erreparatu nien— ez dakit, ez dakit zerr egin dudan! Ekik aztoratuta begiratu ninduen.

—Amaiur... Benetan? Benetan eman duzu izena? Burua poliki-poliki astindu nuen, baiezko gisa.

—Ezin dut sinetsi, Amaiur.

—Zerr gerrtatzen da?

Begiak altxatu nituenean, malkoak zituela begi ertzetan ikusi nuen.

—Denbora guzti honetan zu babesten ibili naiz, Amaiur. Denengandik babesten, inork isekarik egingo ez zizula ziurtatzen, besteengandik ezkutatzen... —mahukarekin begiak lehortu zituen— eta orain, zuk guztien aurrean lotsagarri geratu nahi duzu... Amaiur, mesedez!

Bihotzean ukabilkada bat eman izan balidate bezala sentitu nintzen, inoiz ez nuen hartan pentsatu, inoiz ez nintzen konturatu hartaz.

—Eki... —xuxurlatu nuen, —ez da *horrr*en sinplea. Nik... benetan eskerritzen dut zuk egin duzun guztia, baina...

Lurrera begiratu nuen, ez nintzen berari begietara begiratzeko gai.

—Baina zer? —galdetu zuen, amorratuta.

—Nik... —arnasa sakon hartu nuen— ez dut *munduarrengandik* ezkutatuta bizi nahi. Tarte batez isilik egon ginen, biok lurrera begira, zer esan jakin gabe, barkamena nola eskatu jakin gabe, besteari zenbat maite genuen nola esan ikasi gabe, badira gauzak ikastolan erakusten ez dituztenak...

—Ondo da —esan zuen azkenean Ekik—. Nik beharbada ez nuen horrela jarri behar, baina zugatik egiten nuen. Onena opa dizut lehiaketan.

Nahi gabe ere, negarrez nengoela ohartu nintzen.

—Nik *erre*, Eki —xuxurlatu nuen, laguna urruntzen ari zen bitartean.

Gainerakoek, ordea, ez zuten Ekik bezala hartu berria. Gelakide batzuk iseka egiten ibili ziren parte hartuko nuela jakin zutenean, arratsalde osoan zehar ez ninduten bakean utzi, nire “erre”en esajerazioa eginez.

Nire barruan, alde ezkorra alde baikorra suntsitzen ari zen, denbora osoan ideia txarra zela esanez, txarto aterako zela... Baina modu batean edo bestean, lehiaketa egunera iritsi nintzen, osorik, ikaraz gainezka.

Oholtza atzean lerro batean geunden parte hartzaile guztiak gure txandaren zain. Aurrean nuen neskak, mespretxuzko begirada bat bota zidan.

—Prest zaude eszenatokian abesteko, *Amaiurrrrrrrrrr*? —galdetu zidan barrezka, nire izena txarto ahozkatuz nahita.

Ez-entzun egiten saiatu nintzen, baina urdailean korapilo bat ari zitzaidan osatzen.

—Dibertigarria izango da zu abesten ikustea... —esan zidan, harrokeriaz beteriko irribarrea ezpainetan—. Zorte on, galtzaile!

Eta hori esanda eszenatokian sartu zen. Hurrengoa nintzen, eta urdailak hainbeste estutzen ninduen, non ez bainintzen arnasteko gai ere.

“Lasaitu zaitetz, Amaiur. Gai zara, lortu dezakezu.” esan nion neure buruari.
“Erakutsiezu guzti horiei zertarako gai zaren, nor zaren benetan”.

—Amaiur Lasarte! —esan zuen norbaitek, epaimahaiaren aldetik.

Eszenatokira igo nintzen, bazen garaia munduari benetan egin nezakeena erakusteko. Arnasa hartu eta abesten hasi nintzen.



Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo
Mikoleta Bilbo



MIKOLETA BILBAO BALIOEN HIRIA

C eta D kategoriak



LIBURURIK POLITENAK

Naia Aparicio Garcia
Deustuko Ikastola IPI

Bazen behin, Maya deitutako neska bat. Maya neska oso jatorra eta alaia zen. Baina, bere aita hil zenetik, zoriontasuna desagertzen hasi zitzaion.

Amak ez zekienez zer egin, liburu bat oparitu zion; baina Mayak liburua ikusi eta esan zion:

—Ama, eskerrik asko ni animatzen saiatzeagatik, baina liburu honek ez du gertatutako aldatuko.

Baina amak konbentzituta, liburuari aukera bat emateko eskatu zion, eta Mayak amak esandakoa egin zuen.

Gutxinaka-gutxinaka, Mayak liburuei maitasun handia hartu zien. Eta haren ama egunero-egunero liburutegira joaten zen liburu berrien bila.

Mayak liburu bat irakurtzen zuen bakoitzean, liburuek beste mundu batera eramango balute bezala sentitzen zen; eta bukatzean, mundu errealerara transportatzen zela igarri egiten zuen.

Ostiral batean, amak Mayari errekadu batzuk egitera joango zela esan zion:

—Maya, laztana, erosketak egitera joango naiz. Ordu batzuk beharko ditut. Zu hemen gelditu ni etorri arte, mesedez.

—Bai ama, lasai, hemen egongo naiz. Ez kezkatu.

Hau esan ondoren, amak hiru poltsa hartu zituen eta Mayari musu bat emanaz etxetik atera zen.

Mayak liburu bat hartu zuen eta bere logelan sartu zen. Baina, bat-batean, untxi zuri bat ikusi zuen leihoan berari begira.

Mayak untxi hori nonbait ikusi zuela gogoratu zuen, baina ez zekien non.

—Itxaron... Zu Aliziaren liburuko untxi zuria zara! Erloju bat duzu eta!

Untxia ziztu bizian joan egin zen, baina Mayak liburua itxi eta hura jarraitzeko asmoarekin atea zabaldu zuen.

—Baina, zer egiten ari naiz? —esan zion Mayak bere buruari—. Amak esan dit ezin naizela etxetik atera... Beno, minutu pare bat besterik ez dira izango... Tira, erabakita dago, etxetik irtengo naiz.

Hau esanda, atea itxi zuen eta untxiari jarraitu zion.

Untxiak neska baso batera eraman zuen, baina Mayak erlojutik tira egin zion eta untxia harrapatzea lortu zuen.

—Aizu, zer egiten duzu nire erlojuarekin? Oso garestia da! —oihukatu zion untxiak. Mayak harrituta begiratu zion.

—Zuk hitz egin dezakezu? Baina, nola da hau posible!

—Ba bai, zu bezala izaki bizidun bat naiz. Zu espatzen nenbilen zure laguntza behar dudalako...

Neskak zur eta lur begiratzen jarraitzen zion, baina hari laguntzea erabaki zuen.

—Ongi da, lagunduko dizut —esan zion Mayak untxiari—, baina nire ama hiru ordutan etxera bueltatuko da.

—Zu lasai neskaila, baso honetan denbora normal pasatu arren, zure etxean eta beste leku guztietan oso astiro pasatzen da —aitortu zion untxiak—. Beno, hori orain ez da garrantzitsua. Arazoa da zure aita hil zenetik.


Mayak untxia eten zuen.

—Itxaron, nire aita ezagutzen duzu?

—Noski baietz! Berari ere liburuak irakurtzea gustatzen zitzaion, eta askotan baso honetara etortzen zen nirekin eta beste batzuekin egoteko —erantzun zion untxiak—. Beno, esaten nizuna... Zure aita hil zenetik, bere lagunik onena, Oliver Twist, oso triste dago, eta zure laguntza behar du. Egia esan, ez zaitu ezagutzen, baina zure aitaren antzekoa zarenez, seguruenik hobeto sentituko da.

Maya eta untxia Oliverren etxera joan ziren, eta berarekin hitz egiten hasi ziren.

—Kaixo Oliver, untxi zuria naiz, eta beste neska batekin nator, zurekin hitz egin nahi dugulako.



Oliverrek kopetilun atea zabaldu zuen.

—Kaixo Untxi, kaixo neska, zer behar duzue?

—Kaixo Oliver, nik Maya dut izena.

Oliverrek Mayari begietara begiratu zion eta pozaren-pozez oihukatu zuen:

—ZU AITORREN KOPIA MODUKO BAT ZARA! Zure aitak asko hitz egiten zidan zuri buruz. Zure aitarekin topo egin nuen lehen aldian basoan izan zen. Aitorri txikitatik irakurtzea asko gustatzen zitzaion.

Baina, orduan, berrogeita hamar urte pasa ondoren, untxi zuria nire etxera korrika etorri zen, eta Aitorrek kotxe istripua izan zuela esan zidan.


Handik aurrera, ez naiz inoren laguna izan, beldurra ematen baitit berriro ere, inporta zaidan beste norbait galtzeak.

Mayak hori entzutean Oliverri besarkada bat eman zion.

—Nire aita hil zenetik ni oso triste nengoen, baina liburuek irakatsi zidaten aurrera begiratzea eta horrelako gauzak oso normalak direla.

—Arrazoa duzu, Maya. Jende askok dauka zorte txarra, baina beti dago irtenbide on bat, eta zure irtenbidea liburuak irakurtzea izan da, ezta?

Neskak buruarekin baietz esan zuen.



—Maya, oso berandu da. Zure ama heltzeaz egongo da. Oliverri agur esan behar diogu!

—Arrazoa duzu! Oliver, oso jatorra zara. Askok poztu nau zu ezagutzeak. Eta gogoratu, triste zauden bakoitzean nire logelako leihoari hiru golpe txiki eman eta zuregana etorriko naiz.

—Eskerrik asko Maya, benetan. Oso lagun ona zara eta

asko poztu nau zuek hona etorri izanak niri animoak emateko eta auto-estima igotzeko.

Hau esanda, Maya eta untxi zuria Oliverren etxetik irten ziren eta korrika neskatoaren etxera abiatu ziren.

Heltzean, Mayak untxiari besarkada bat eman zion.

—Oso ondo pasatu dut zurekin, eta orain gauza guztiei alde ona ateratzea lortu dut. Hurrengo batera arte Untxi!

—Hurrengo batera arte, Maya!

Mayak bere logelako leihoa zabaldu eta salto batez liburua hartu eta irakurtzen jarraitu zuen.

DIN DON!!

—Kaixo laztana! Odolostea, porruak, patatak, tomateak... erosi ditut. Kriston kola egon da, baina azkenean erosketa guztiak egitea lortu dut. Eta zu, zelan laztana? Zelan doa irakurketa?

—Oso ondo ama. Oso interesgarria. Bazenekien aitaren lagunik onena Oliver Twist zela?

—Ez esan txorakeriarik. Hori ezinezkoa da. Oliver Twist liburu bateko pertsonaia bat besterik ez da eta. Beno Maya, joan zaitez eskuak garbitzera eta lagundu iezadazu patata tortillarekin, mesedez.

—Bai, orain noa. Itxaron momentu batean.

Mayak liburua itxi eta aitarekin zeukan txikitako argazki bat atera du ohe azpitik. Marko batean sartu eta bere ohe gaineko horman zintzilikatu du. Eta bere buruari esan dio:

Orain badakit liburuetan ez ditudala bakarrik istorio politak topatuko, baizik eta aitaren aztarnak ere. Horrek, hemendik aurrera, lasaitasun handia emango dit, badakit nola gerturatu aitarengana eta.

—Banoa ama!

HERRIKO TXORI BELTZ

Julen Guerra Cobos
IES Ibaizabal BHI

Zuhaitzondo herri txikian, betidanik entzun da kondaira misteriotsu bat: *Txori Beltza*. Zaharren arabera, hegazti beltz handi eta distiratsu hori agertzen denean, norbait arriskuan dago. Batzuek diote haren presentzia abisu bat dela, beste batzuek madarikazioa dela uste dute. Eztabaida handiak egon dira urteetan zehar, baina ez dago froga argirik. Inork ez du lortu txoriari jarraitzea edo nondik datorren jakitea, eta kondaira geratu da misterio hutsean.

Herri horretan bizi da Maialen, 11 urteko neska bizkor eta ausarta. Gaez, haren logelako leihotik basoa ikusten du, eta batzuetan txorien kantak entzuten ditu. Gau batean, lo hartzera zihoanean, zerbait bitxia gertatu zen: Txori Beltza bera agertu zen, Maialenen leihoaren ondoan pausatuta. Hegaztiak begirada hipnotizatzailerak zuen; Maialenek ezin zuen begirada kendu haren begi distiratsuetatik. Txoriak hegoak astindu eta hegan egin zuen, baina bat-batean hegaztiak berari jarraitzeko gonbita egiten ari zitzaiola iruditu zitzaion Maialeni.

Maialenek erabaki zuen ausartzea. Jertsea hartu, zapatak jantzi eta etxetik irten zen, isil-isilik, inor ohartu ez zedin. Txoria herriko kaleetan barrena gidatzen hasi zen. Ez zegoen inor kalean, eta ilargiak argitzen zuen bidea. Txoriak korrika eginarazi zion Maialeni errotaraino, herritik gertu dagoen eraikin zahar batera.

“Giltza hau zertarako ote da?” galdetu zuen bere baitan. Baina galdera horrek beste misterio bati egin zion tokia biharamunean, Maialenek herriko albiste kezkarri bat entzun zuenean: errementaria, beti Txori Beltzaren kondairei buruz hitz egiten zuena, desagertu zen. Inork ez zekien non zegoen, baina Maialenek argi zuen gauza biak lotuta egon behar zirela.

Txori Beltzaren eta errementariaren arteko lotura ulertu nahian, Maialen berriro errotara joan zen Iker bere lagunarekin, adin bereko mutil kementsu baina zalantzati batekin. Elkarrekin erabaki zuten errota miatzea, giltza zerbaitetan erabil zitekeen ikusteko. Hainbat saiakeraren ondoren, giltzarekin ezkutatuta zegoen ate zahar bat irekitzen zela konturatu ziren.

Atearen atzean, tunel estu bat aurkitu zuten, eta tunela segituz kobazulo txiki batera iritsi ziren.

Bertan, aurkikuntza harrigarria egin zuten: errementaria zegoen, bizirik baina oso ahul. Kobazuloan erori zen duela aste batzuk, mineral bila ari zela, eta ezin izan zuen irten. Txori Beltzak etengabe hurbildu zien kokaleku hori, Maialenek eta gainerako herritarrek aurki zezaten.

Errementaria kobazulotik ateratzeko, Maialenek eta Ikerrek herri osoari deitu zioten laguntza eskatzeko. Herrikoek soka luzeak eta lanabesak erabili zituzten errementaria salbatzeko, eta azkenik, gizonak azaldu zuen zergatik zegoen bertan: kobazulo hori baliabidez beteta zegoen, batez ere mineral preziatuekin, eta asmoa zen horiek erabiltzea herria hobeto eraikitzeko eta garatzeko. Hala ere, Maialenek gauza bat ohartarazi zuen: basoa eta kobazuloa modu arduratsuan kudeatu behar zirela.

Hurrengo asteetan, herriko biztanleek erabaki zuten basoa eta bertako espezieak babestea. Txori Beltza, antzinako espezie berezi baten parte zena, erreserba natural batean sartu zuten, eta adituak ingurura joaten hasi ziren, hegazia eta haren portaera bitxia aztertzeko.

Maialenek, azkenik, ulertu zuen Txori Beltzaren kondaira ez zela madarikazio bat, ezta magia ere. Giza portaerak eta naturaren harmoniak sortutako fenomeno bat zen. Herriko bizitzan oreka berri bat ezarri zen: aurrerapena eta naturaren babesa eskutik joan zitezkeela erakutsi zuten.

Gauetz, Maialen bere leihotik begira zegoen, eta han ikusi zuen berriro Txori Beltza, zeru gainean hegan. Oraingoan, ez zen misterio bat: jakin zuen herria eta basoa, denak batera, ondo babestuta zeudela.



Aurkibidea

Sariak	4
------------------	---

A Kategoria (Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

• Jazarpena nire ikasgelan.	9
• Nire bizitzako animaliak	13
• Azkarregi haserretzen zen umea	17
• Estralurtarra eta hiru umeak	20
• Ur-jauzi miragarria	21
• Ni neu naiz	24

B Kategoria (Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailak)

• Mahasti artean.	29
• Nora eta Bilboko uholdea	32
• Erloju... adimenduna?	34
• Elkar mugituz lortuko dugu	38
• Etxerako bidean.	42

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailak)

- Zoritxarrez ezin da ezer egin 49
- Ekarpen bakoitzaren garrantzia 53
- Sareetan nahastua 56
- ...3 puntu... 59

D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Ardiak. 63
- Zerbait esan nahiko nuke 67
- Olibondo bat gutxiago Zagreben 72
- Babestua. 76
- Bat, bi, eta hirru! 79

MIKOLETA - BILBAO BALIOEN HIRIA

C Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Libururik politenak. 85


D Kategoria (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailak)

- Herriko Txori Beltz 89



Bilbao

UDALA
AYUNTAMIENTO



Miy
Basque
Koleta

Miy
Basque
Koleta

Miy
Basque
Koleta

Miy
Basque
Koleta

Miy
Basque
Koleta

Miy
Basque
Koleta

Miy
Basque
Koleta

Miy
Basque
Koleta